

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**8806** *7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

Europar Batasuna gainerako herrialdeen aitzin-aitzinean doa pertsona fisikoen datu pertsonalak babesteko eskubideak errespetatzeko bermeei eta estandarrei dagokienez; hots, Batasunak eskaintzen dituen bermeak eta estandarrak erreferente dira mundu osoan. Teknologiaren garapen azkarraren eraginez —batez ere, Internetena— eta munduko eta Europako ekonomia gero eta globalizatuagoak direla medio, ezinbestekoa da datuak babesteko esparru juridikoa erreformatzea, babes-maila handi hori finkatzeko eta are hobetzeko ere, lege-esparru berri bat sortuz, errealitate aldakorrera egokituko den eta, aldi berean, sendoa, koherentea eta integrala izango den lege-esparru berri bat. Azken batean, mundu globalizatu eta digital honetarako arau-ingurune bat.

Horiek horrela, Europako Batzordeak, «Europar Batasuneko datu pertsonalen babesaren ikuspegi orokorra» komunikazioa egin zuen 2010eko azaroaren 4an, estatu kideekin, herritarrekin eta ukitutako sektoreekin bi urtetik goragoko kontsultaldia egin ondoren, eta komunikazio horrek ezarri zituen, hain zuzen ere, arau-ikuspegi berriaren oinarriak.

Sortutako arau-esparruak bi tresna nagusi ditu: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua eta egun bereko (EB) 2016/680 Zuzentaraua. Erregelamendu hori (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, haien datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du, eta, horrez gain, hogeitaz baina gehiagoz indarrean egondako lege bat ordeztzen du. Aipatu dugun beste tresnak, (EB) 2016/680 Zuzentaruak, berriz, pertsona fisikoen babesa arautzen du, agintaritza eskudunek arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu edo epaitzeko asmoz edo zehapen penalak betearazteko asmoz datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez, eta indarrik gabe uzten du Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia.

Espainiako ordenamendu juridikoan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak egokitu zuen Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez.

II

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentaruak Kontseiluaren 2008ko azaroaren 27ko 2008/977/JAI Esparru

Erabakia (lankidetzazko polizial eta judizial penalarren esparruan tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa) indargabetzen du; izan ere, esparru-erabaki horrek zenbait muga zituen.

Lehenik eta behin, Lisboako Tratatuen aurretik emandako araua zen, eta, beraz, tratatu berrietara egokitu beharra zegoen; bereziki, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 16. artikulura, zeinaren arabera Europako Kontseiluak eta Parlamentuak arautu behar baitute datu pertsonalen babesa, legegintza-prozedura arruntaren bidez.

Bigarrenik, esparru-erabakia onestean, Lisboako Tratatua sinatu arte Europar Batasunak izandako zutabe-egitura hartu zen kontuan. Beraz, estatu kideen arteko mugaz harandiko datu pertsonalen tratamenduari soilik aplikatu zekiokkeen; aitzitik, ez zuen eraginik estatuen barruko tratamenduetan.

Era berean, esparru-erabakiak maniobratzeko ahalmen oso handia ematen zien estatu kideei, eta ez zuen gutxieneko batasunik bermatzen eremu jakin batzuetan; konparazio batera, ez zuen bermatzen estatu guztietan interesdunek beren datuetan sartzeko eskubidea izatea, datuak helburu jakinetarako tratatzeko printzipioa errespetatzea edo nazioarteko transferentzietarako baldintzak betetzea.

Azken buruan, eremu horretako erregulazioa konplexua zenez eta zatituta zegoenez, Europako lankidetzazko polizial eta judizial penaleko eragileek ez zuten elkarrenganako konfiantza nahikorik, eta informazioa partekatzeke errezeloak zituzten; besteak beste, ez zegoelako gutxieneko batasunik datu pertsonalak babestearen inguruan —datu pertsonalak funtsezkoak dira lankidetzazko operatiborako—.

### III

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentarauak akats horiek zuzentzen ditu, eta, halaber, erregulazioaren aplikazio-eremua handitzen du, barnean hartzen baitu lankidetzazko polizial eta judizial penalarren eremuan egindako datu pertsonalen tratamendu nazionala. Gainera, Europako aurreko araudiaren beste gabezia batzuk konpontzen ditu: datu genetikoak erregulatzen ditu, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eskatu bezala; datu pertsonalak zehaztasun- eta fidagarritasun-mailaren arabera bereizten ditu, eta interesdunak kategoriaka sailkatzen ditu.

Hala testuinguru nazionallean nola nazioarteko testuinguruan zeuden segurtasunerako mehatxu gero eta handiagoei erantzuteko onetsi zen zuzentarau hori —mehatxuok mugaz gaindikoak dira askotan—, eta lege organiko honek haren transposizioa egiten du. Hori dela eta, ezinbestekoak dira, batetik, estatuak nazioarteko lankidetzazko aritzea, eta bestetik, auzi batean inplikaturik dauden herrialdeetako zerbitzu polizial eta judizialek informazio pertsonala ematea elkarri. Hain zuzen ere, New Yorkeko 2001eko atentatu terroristak inflexio-puntua izan ziren terrorismoaren aurkako borrokan lankidetzazko judiziala eta poliziala indartzeko premia azalertzeko, eta hori berriz ere geratu zen agerian 2016ko Bruselako eta Nizako atentatuak izan zirenean.

Mota horretako mehatxuak prebenitzeko eta haien aurka borrokatzeko bide eraginkorra da lankidetzazko, hari esker informazio operatiboa garaiz partekatu daiteke-eta. Gainera, gaur egungo baldintza teknikoek segurtasun-arloko datuak eskala handian tratatzeko aukera ematen dute.

Informazio-truke hori printzipio demokratikoak eta pertsonen segurtasuna bermatuta egin behar da tratamenduen fase guztietan.

Lege organiko honek, beraz, herritarren eskubideen eta bereziki herritarren datu pertsonalen babes-maila handia lortzea du helburu, Europar Batasuneko gainerako estatu kideek dutenaren pareko babes-maila, alegia, eta, horretarako, zuzentzarauan ezartzen diren arauak txertatzen eta zehazten ditu.

Espainiako Konstituzioa aitzindaria izan zen datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea aitortzeari eta defendatzeari dagokienez. Konstituzioaren 18.4 artikulua xedatzen du legeak informatikaren erabilera mugatuko duela, herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta haien guztien eskubideen egikaritze osoa bermatzeko. Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz emandako jurisprudentziaren

arabera, datuen babesa oinarrizko eskubide bat da, pertsona orori bere datuen erabilera eta xedea kontrolatzeko ahalmena bermatzen diona, datu-trafiko ez-zilegirik edo kaltegarrikerik izan ez dadin, eta datuak eskuratu ziren helbururako eta ez beste baterako erabil daitezzen.

Hori guztia dela eta, estatu kideek Zuzentarauaren transposizioa eginda esparru juridiko sendoa ezarriko da. Esparru horrek lankidetzat polizial eta judicial penalak errazteko behar den segurtasun juridikoa emango du, eta, ondorioz, beren eginkizunak modu eraginkorragoan betetzeko behar duten segurtasun juridikoa eskainiko die Segurtasun Indar eta Kidegoei eta Espainiako sistema judicial penal osoari (espetxe-arloa barne).

#### IV

Lege organiko honek hirurogeita bost artikuluko ditu, eta honela banatuta daude: zortzi kapitulu, bost xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta hamabi azken xedapen.

I. kapituluak, xedapen orokorreko buruzkoak, Lege Organikoaren xedea definitzen du: arau-hauste penalak prebenitzea, detektatzea, ikertzea edo epaitzea edo zehapen penalak betearaztea helburu duen datu pertsonalen tratamendua arautzea, barnean direla segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzeko eta mehatxuotatik babesteko egindakoa, baldin eta lege organiko honen ondorioetarako agintaritzak eskuduntzat hartzen diren organoek tratatzen badituzte datuak.

Helburu nagusia da agintaritzak eskudun horiek, datuak tratatzean, aurreikusitako helburuak betetzea eta, aldi berean, herritarren oinarrizko eskubideak eta askatasunak babesteko estandar ahalik eta handienak ezartzea, bete dadin Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 8. artikuluko 1. apartatuan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 16. artikuluko 1. apartatuan eta Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikuluan agindutakoa.

Era berean, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 22.6 artikuluko xedatutakoari jarraituz, datuak Segurtasun Indar eta Kidegoek kamerak eta bideokamerak erabiliz eskuratutako irudi eta soinuetatik badatoz eta lege organiko honetan ezarritako helburuetakoren baterako tratatzen badira, edo, bestela, espetxeetako zaintza eta kontrolerako edo trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplinarako organo eskudunek tratatzen badituzte, lege organiko honen xedapenek arautuko dituzte tratamenduak, eta, Lege Organikoaren edukia aurka ez doan guztian, aipatutako esparruak arautzen dituen indarreko araudiarekin osatuko dira xedapen horiek. Hartara, sistema berri bat ezartzen da, tratamenduen arduradunen betebeharrak eta arduradun horiei esleitzen zaizkien eginkizunak ardatz izango dituen.

Halaber, hildakoen datuak tratatzeko berariazko zenbait xedapen txertatzen dira, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren ezarritakoarekin bat, nahiz eta mota horretako datuak oro har tratamendutik baztertu behar diren.

Lege organiko honen ondorioetarako, agintaritzak eskuduntzat hartzen dira Legearen aplikazio-eremuko helburu espezifikoak betetzera bideratutako eskumenak legez esleituta dituzten agintaritzak publikoak. Zehazki, hauek izango dira agintaritzak eskudun: Segurtasun Indar eta Kidegoak, jurisdikzio-ordena penaleko agintaritzak judicialak eta Fiskaltza, espetxeetako administrazioak, Aduana Zaintzako Zuzendaritza Ondokoa, Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordearen Zerbitzu Exekutiboa eta Terrorismoa Finantzatzeko Jarduerak Zaintzeko Batzordea. Hori guztia horrela izanik ere, jurisdikzio-organoen egiten dituzten tratamenduetan, lege organiko honek, Botere Judicialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak eta lege prozesal penalek xedatutakoa beteko da.

Tratamendu jakin batzuk aplikazio-eremutik kanpo uzten dira espresuki, hala nola agintaritzak eskudunek Lege Organikoan ezarritakoez bestelako helburuetarako egiten dituztenak; Estatuko Administrazio Orokorreko organoen, Europar Batasunaren Tratatuaren V. tituluaren II. kapituluak hizpide dituen jardueren esparruan, atzerri-politikari eta segurtasun-politika erkideari lotuta egiten dituztenak; Europar Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremuan sartzen ez diren jardueren ondoriozkoak, eta gai sailkatuei buruzko

araudiaren mendekoak. Espresuki esaten da azken mota horretako tratamenduen artean Defentsa Nazionalari buruzkoak daudela.

II. kapituluak datuak babesteko printzipioei buruzkoa da, eta printzipiook tratamenduaren arduradunak bermatu behar dituela ezartzen du. Datuak babesteko Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren antzera arautzen dira datuak babesteko printzipioak, lege organiko honen eremuari dagozkion berezitasunak berezitasun.

Halaber, agintaritza eskudunekin lankidetzan aritzeko eginbeharra jasotzen da, eta, horren arabera, legez baimen judizialik exijitzerik ez badago, administrazio publikoek eta pertsona fisiko edo juridiko orok arau-hauste penalak ikertzeko edo epaitzeko edo zigorrak betearazteko beharrezkoa den informazioa eman beharko diete agintaritza judizialei, Fiskaltzari edo Polizia Judizialari, baita segurtasun publikorako arrisku erreal eta larriak prebenitzeko eta haietatik babesteko beharrezkoa den informazioa ere. Gainera, ezingo diote geroago izan litezkeen tratamenduen berri eman interesdunari. Azken zehaztapen hori funtsezkoa da interesdunari informazioa emateak ez ditzan arriskuan jarri Zuzentarauaren eta lege organiko honen arabera datuak tratatzea justifikatzen duten helburuak.

Era berean, tratatutako datu pertsonalak kontserbatzeko eta berrikusteko epeak arautzen dira; besteak beste, datuak oro har zenbateko epeaz kontserba daitezkeen zehazten da, eta sistema bat ezartzen da, arduradunak aukera izan dezan, legeak ezarritako epean, bere tratamendu-jarduera bakoitzeko datu pertsonal guztiak kontserbatzeko, mugatzeko edo ezerezteko beharra berriz aztertzeko. Arduradunak, datuak tratatzean, interesdun-kategoriaka bereizi behar ditu datuak (susmagarriak, kondenatuak, zehatuak, biktimak eta auziarekin erlazionatutako beste pertsona batzuk, besteak beste), eta tratatutako datuak egitateetan ala iritzietan oinarrituta dauden zehaztu behar du.

Horrez gain, datu pertsonalen tratamendu jakin bat legezkoa izango bada, baldintza batzuk bete behar ditu: agintaritza eskudunek tratatzea datuok; tratamendua beharrezkoak izatea lege organiko honen helburuak betetzeko, eta, kasuan-kasuan beharrezkoa bada, gutxieneko eduki batzuk biltzen dituen lege-mailako arau batek zehaztea tratamenduaren berezitasunak.

Tratamendu-baldintza espezifikoak bete behar dituzten datuak transmitituz gero, datuen hartzaileak baldintza horiek errespetatu behar ditu, batik bat transmititu zirenez bestelako helburuetarako transmititzeko edo erabiltzeko debekua.

Bestalde, kategoria berezietako datuak behar-beharrezkoa denean eta baldintza jakin batzuk betez gero soilik trata daitezke; kategoria berezietako datuak dira, besteak beste, pertsonen jatorri etnikoa edo arraza-jatorria, iritzi politikoak, sinesmen erlijioso edo filosofikoak edo sindikatu-afiliazioa adierazten dituztenak, eta datu genetiko edo biometrikoak.

Datu biometrikoak (hatz-markak eta aurpegiaren irudia, esaterako) kategoria berezi horretan sartuko dira baldin eta pertsona fisiko bat modu unibokoan identifikatzeko erabiltzen badira. Maiz, agintaritza eskudunek egiten dute identifikazioa, legeak ezarritako jarduketetan. Helburua da arau-hauste penalen egileak edo parte-hartzaileak singularizatzea, bilatutako edo ustezko pertsonak diren esateko moduan egotea, eta, hartara, zantzu edo aztarna biometrikoek esker, pertsona bati egitate jakin batzuetan parte hartu izana egozte edo, bestela, hura errugabetzea.

Horrez gain, teknologiaren bilakaera azkarra eta eskura ditugun bitarteko elektronikoak aintzat hartuta, datuen erabileraren arloan azkar eta behar bezala erantzuteko aukera ematen duen legezko gaikuntza ezartzen da, azken buruan interesdunen eta herritar guztien eskubideak bermatzeko eta babesteko.

Aitzitik, debekatu egiten da banakako erabaki automatizatuak hartzea, esparru horretan profilak egitea barne, salbu eta Espainiako edo Europako ordenamendu juridikoko lege-mailako arau batek horretarako baimena ematen badu.

III. kapituluak bi atal ditu, eta pertsonen eskubideei buruzkoa da. Eskubideak egikartzeko baldintza orokor batzuk arautzen ditu; besteak beste, arduradunak interesdunaren eskubideei buruzko informazioa labur, hizkera argi eta erraza erabiliz eta

doan eman behar du. Interesdunaren esku zer informazio jarri behar den ere zehazten da; datu batzuk nahitaezkoak dira beti, eta beste zenbait, kasu jakin batzuetan bakarrik.

Halaber, kapitulu honetan, datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideak aitortzen dira. Eskubide horiek betez, interesdunari ahalmena ematen zaio, lehenik, jakiteko bere datuak tratatzen ari diren ala ez, eta, tratatzen ari badira, tratamenduari buruzko datu jakin batzuk irispidean izateko; bigarrenik, datuak zuzentzeko, baldin eta zehaztugabeak badira; hirugarrenik, datuak ezerezteko, 6., 11. eta 13. artikuluetan xedatutakoaren aurkakoak badira edo arduradunak bete beharreko legezko betebeharrak baten arabera ezereztu beharrekoak badira, eta, azkenik, datuen tratamendua mugatzeko, baldin eta interesdunak datuak zehatzak ote diren zalantzan jartzen badu edo datuak soil-soilik frogatzea gisa gorde behar badira.

Interesdunak zuzenean egikaritu ahal izango ditu eskubideok, edo, kasu jakin batzuetan, datuak babesteko agintaritzaren bitartez.

Lege organiko honek xedatzen du eskubide horiek arrazoi jakin batzuk direla tarteko murriztu daitezkeela, hala nola ikerketa bat oztokatzea saihesteko edo segurtasun publikoa edo segurtasun nazionala arriskuan jartzea ekiditeko.

Bigarren atalean, interesdunak ikerketen eta prozesu penalen esparruan dituzten eskubideen araubide berezia ezartzen da.

IV. kapituluak hiru atal ditu: datuen babeserako arduradunen eta eragileen betebeharrak eta erantzukizunei buruzkoa, segurtasun-neurriak buruzkoa eta datuak babesteko ordezkararen figurari buruzkoa. Tratamenduaren arduradunak, tratamenduaren izaerari, esparruari, testuinguruari eta helburuei erreparatuta eta datuak tratatzeak pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako zenbaterako arriskua dakarren aintzat hartuta, neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak aplikatuko ditu.

Tratamendu-eragileak arduradunaren bidez beteko ditu bere eginkizunak, eta neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak aplikatuko direla bermatu behar du.

Tratamenduaren arduradun eta eragile orok izan beharko du, batetik, tratamenduari jardueren erregistro bat, identifikazio-datuak bilduko dituen (adibidez, arduradunarekin harremanetan jartzeko datuak, helburuak eta interesdun-kategoriak), eta bestetik, eragiketen erregistro bat, zeina sistema honen giltzarria eta tratamenduaren printzipioetako batzuk betetzen direla egiaztatzeko oinarritzeko tresna baita —zenbait eragiketara jasoko dira erregistro horretan; besteak beste, datu pertsonalen bilketa, aldaketa, kontsulta eta transferentzia—. Horrez gain, tratamenduaren arduradunak eta eragileak datuak babesteko agintaritzarekin lankidetzan aritu behar dute, indarrean dagoen legeria betez.

Era berean, kapitulu honetan, betebeharrak batzuk ezartzen dira, erantzukizun aktiboko eredu berri bati erantzuten diotenak. Eredu berri horri jarraituz, datu pertsonalak tratatzeak interesdunari zer arrisku ekar diezaikeen baloratu behar da alde aurretik, eta ondoren, balorazio hori aintzat hartuta, dagozkion neurriak hartu behar dira.

Horrez gain, bereziki erreparatzen zaio tratamenduaren segurtasunari, eta aplikatuko diren segurtasun-neurrietako batzuk arautzen dira. Alabaina, aipatutako eragiketen erregistroa abian jartzea bakarrik hartzen da neurri tekniko eta antolaketa-neurri derrigorrezkotzat. Mota horretako gainerako neurriak dagokienez, arduradunak aztertu eta erabakiko du zein diren egokienak unean uneko tratamendu motaren eta aurreikusitako arrisku-mailaren arabera beharrezkoa den kontrola ezartzeko. Halaber, segurtasun-urraketarik egonez gero, datuak babesteko agintaritzak, oro har, horren berri eman beharko dio interesdunari, legean espresuki aurreikusitako kasu jakin batzuetan izan ezik.

Datuak babesteko ordezkaria datuen babeserako arduradunen aholkularitza- eta ikuskapen-organoa edo figura da. Gerta daiteke mota horretako organo edo figura bakarra egotea zenbait agintaritzak eskuduntzat, eta hura izendatzea derrigorrezkoa izango da, non eta datuak ez diren helburu juridikzionaletarako tratatzen. Tratamenduren bat aplikazio-eremu batean baino gehiagotan sartzen bada, datuak babesteko ordezkararen figura bakarra egongo da horietarako guztietarako, agintaritzak eskudunen antolakundeetan arazorik ez izateko.

V. kapitulan, Espainiako agintaritzak eskudunak Europar Batasuneko kidea ez den estatu bati edo nazioarteko antolakunde bati egindako datu pertsonalen transferentziak

arautzen dira, barnean direla Europar Batasunetik kanpoko beste estatu bati edo nazioarteko beste antolakunde bati geroago egindakoak ere, eta, halaber, transferentziak legezkoak izateko bete beharreko baldintzak ezartzen dira.

Transferentziak egitean, beraz, lege organiko honetan xedatutako baldintza jakin batzuk bete behar dira, Legean aurreikusita dagoen pertsona fisikoen babes-mailari kalte egiten ez zaiola bermatzeko. Horiek horrela, lege organiko honen helburuetarako beharrezkoak diren transferentziak bakarrik egin behar dira, eta betiere hirugarren herrialdeko edo nazioarteko antolakundeko tratamenduaren arduraduna helburu horiek betetzeko agintaritza eskuduna baldin bada.

Era berean, datu bat hirugarren herrialde edo nazioarteko antolakunde bati transferitzen zaionean, datua zer estatu kidetan eskuratu zen, bada estatu horretako agintaritza eskudunak baimena eman behar du transferentzia hori egiteko, baita gerora hirugarren herrialdeei edo nazioarteko antolakundeei transferentziak egiteko ere, horrelakorik eginez gero. Europako Batzordeak transferentziaren hartzaille den hirugarren herrialde edo nazioarteko antolakundea ebaluatu behar du, datuek zer babes-maila duten aintzat hartuta. Erabakirik hartu ezean, tratamenduaren arduradunak berme egokiak eskaintzen dituela joko da. Baldintza horiek betetzen ez dituzten transferentziak egiteko baimena emango da, bakar-bakarrik, lege organiko honetan aurreikusitako salbuespenezko arrazoiak daudenean. Kapitulu honen amaieran, agintaritza eskudun izan ez eta beste herrialde batzuetan kokatuta dauden hartzaillei egindako datu pertsonalen nazioarteko transferentziak arautzen dira.

VI. kapituluak, datuak babesteko agintaritzei buruzkoak, xedatzen du Datuak Babesteko Espainiako Agentzia eta datuak babesteko bulego autonomikoak izan behar dutela agintaritza horiek, zeinek bere eskumenen esparruan. Era berean, Lege Organikoak bulego horiek zer eskumen eta egiteko dituzten zehazten du, eta, halaber, estatu kideetako datuak babesteko agintaritzek elkarri lagundu behar diotela dio. Gainontzekoan, aplikatzekoa zaien araudiari lotzen zaio.

VII. kapituluak aurreikusten du ezen, datuak babesteko agintaritzetan aurkezten diren erreklamazio-prozeduretan, men egingo zaiola abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan edo, hala badagokio, kasuan kasuko datuak babesteko agintaritza erregulatzen duen araudian ezarritakoari. Tratamenduaren arduradunek edo eragileek edo datuak babesteko agintaritzako arduradunek, lege organiko hau urratzearen ondorioz, interesdunaren ondasunei edo eskubideei kalteren bat edo lesioren bat eragiten dieten kasuei buruz ari da, hain zuzen ere.

Era berean, tratamenduaren arduradunek edo eragileek, edo, hala badagokio, datuak babesteko agintaritzak lege organiko hau urratzearen ondorioz interesdunaren ondasunei edo eskubideei kalteren bat edo lesioren bat eraginez gero, zer erantzukizun izango duten ezartzen da kapitulu honetan. Halaber, zehazten da nola egikaritu behar den benetako babes judizialerako eskubidea administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, datuak babesteko agintaritza baten erabakien aurka, erabakiok interesdunak ukitzen dituztela jotzen denean.

Azkenik, VIII. kapituluak arautzen du zein den aplikatu beharreko zehapen-araubide espezifiko lege organiko honetan aurreikusitako betebeharrak konplitzen ez direnean. Batetik, egindako arau-hausteen erantzukizuna nor duen zehazten da. Bestetik, arau bat baino gehiagoren mendeko kasuetarako erregelak zehazten dira, egitate bat arau horietako biri edo gehiagori erreparatuta kalifikatu daitezkeen egoerak ebazteko, eta, horrez gain, arau-hauste arinak, astunak eta oso astunak tipifikatzen dira. Azkenik, zehazten da zer motatako zehapenak ezar daitezkeen, eta arau-hausteen eta zehapenen preskripzio- eta iraungitze-epeak xedatzen dira.

Xedapen gehigarrietan, araubide espezifikoak jorratzen dira, baita Europar Batasunaren barruko datu-trukea, lankidetzak judizial penalaren eta lankidetzak polizialaren esparruko nazioarteko akordioak, fitxategi-tratamenduak eta Administrazio Publikoaren Biztanleria Erregistroa ere.

Azken xedapenen bidez, zenbait aldaketa txertatzen dira lege hauetan: Espetxei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorrean —zigorra betearazteko tratamenduak direla-eta lege organiko honek aurreikusitakora egokitzen da—; abenduaren

30eko 50/1981 Legean; uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan; abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan; irailaren 16ko 1/2020 Lege Organikoan, terrorismo-delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko asmoz Bidaiarien Izenen Erregistroko datuak erabiltzeari buruzkoan —operadoreen betebeharrak jakin batzuk zehazten dira—; uztailaren 11ko 19/2007 Legean —kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkakoan— eta Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legean —bi kasuetan, zehapen-espeditenteen irautze-epaiek egokitzen dira—; eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legean, urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan —segurtasun nazionalerako arrazoiak direla-eta egindako matrikulazioei lege-babes espezifikoak ematen zaie—.

Lege organiko hau prestatzeko lanean, kontuan hartu dira premiaren, efikaziaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak, hala agintzen baitu Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua.

Lehenik eta behin, beharrezko araua da; izan ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentarauaren transposizioa lege organiko baten bidez egin behar da, Europar Batasunerako arau horrek Konstituzioaren 18. artikuluan aitortutako oinarriko eskubide bati eragiten diolako eta Konstituzioaren 81. artikulua hala agintzen duelako. Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikulua xedatzen duenez, legeak informatikaren erabilera mugatuko du, herritarren ohorea, norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua eta herritarren eskubideen egikaritze osoa bermatzeko.

Horrez gain, lege organiko honek zenbait tresna txertatzen ditu Espainiako barne-ordenamenduan, pertsona fisikoaren datuak eraginkortasunez babesteko, baldin eta agintaritzaren eskudunek arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko edo epaitzeko edo zehapen penalak betearazteko tratatzen badituzte datu horiek —barnean direla segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzea eta mehatxuotatik babestea—.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, arautu beharreko gaia zein den kontuan hartuta, zuzentarauaren transposizioa lege organiko baten bidez egiten da, eta, beraz, lege organiko hau izapidetzean eta ordenamendu juridikoan integratzean, mota horretako arauak babesten dituzten bermeak aplikatuko dira.

Proportzionaltasun-printzipioa dela-eta, lege organiko honek berme ugari jasotzen ditu datu pertsonalen tratamendua proportzionala, egokia, ahalik eta txikiena eta nahikoa izan dadin, lortu nahi diren helburuak zein diren aintzat hartuta. Zehazki, datu pertsonalen tratamendua arautzen duten printzipioei jarraituz tratatuko dira datuak, eta ez dira tratatuko arauan ezarritakoez bestelako helburuetarako, non eta Europar Batasunerako Zuzenbideak edo Espainiako barne-zuzenbideak ez duten tratamendu hori egiteko baimenik ematen. Datu pertsonalak tratatzearen helburua ez bada arau-hauste penalak prebenitzea, detektatzea, ikertzea edo epaitzea edo zehapen penalak betearaztea, barnean direla segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzea eta mehatxuotatik babestea, Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra aplikatuko da, salbu eta tratamendua Europar Batasunerako Zuzenbidearen aplikazio-eremutik kanpoko jardura baten barruan egiten bada.

Gardentasun-printzipioa ere betetzen da; izan ere, arau hau prestatzean, parte-hartze publikoko izapideak bete dira, alegia, aurretzeko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldi eta informazio publikoaren izapidea.

Lege organiko hau izapidetzen ari zela, gaiak ukitzen dituen ministerioek ez ezik, hauek ere eman dute txostena: Datuak Babesteko Espainiako Agentziak; Datuak Babesteko Euskal Bulegoak; Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak; Kontseilu Fiskalak; Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak; Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Publikoko Sailak eta Kataluniako Generalitateko Barne Sailak, eta, azkenik, Estatu Kontseiluak. Hartara, aipatutako organo esanguratsuek egindako oharrak bildu dira testuan.

Azkenik, lege organiko hau Konstituzioaren 149.1 artikuluko 1., 6., 18. eta 29. arauen babesean ematen da; izan ere, arau horiek eskumen eskusiboak ematen dizkiote Estatuari, hurrenez hurren, konstituzio-eskubideak egikartzeko eta konstituzio-eginbeharrak betetzeko orduan espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak arautzeko; arlo penaleko eta prozesaleko eta espetxe-arloko legeriari dagokionez; administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen oinarriei dagokienez eta administrazio publikoen erantzukizun-sistemari dagokionez; eta segurtasun publikoari dagokionez.

## I. KAPITULUA

### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. *Xedea.*

Lege organiko honen xedea da agintaritza eskudunek pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari dagokionez babesteko arauak ezartzea, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko, barnean direla segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzea eta mehatxuotatik babestea.

#### 2. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Erabat edo partzialki automatizatutako datu pertsonalen tratamenduari aplikatuko zaio, baita fitxategi batean jasota dauden edo jasotzekoak diren datu pertsonalen tratamendu ez-automatizatuari ere, baldin eta tratamendu hori agintaritza eskudunek egin badute, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko edo epaitzeko edo zehapen penalak betearazteko, barnean direla segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzea eta mehatxuotatik babestea.

2. Dela organo judizialek eta fiskaltzek beren eskumeneko jarduketak edo prozesuak izapidetzean datu pertsonalak tratatzen dituztenean dela 1. artikuluan eremuan bulego judizial eta fiskalaren kudeaketaren barruan datu pertsonalak tratatzen direnean, hauek bete beharko dira: lege organiko honetan agindutakoa, hargatik eragotzi gabe Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren xedapenak; aplikatzekoak diren lege prozesalak; eta, hala badagokio, abenduaren 30eko 50/1981 Lege Organikoa, Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa arautzen duena. VI. kapituluan aipatzen diren datuak babesteko agintaritzak ez dira eskudun izango tratamendu-eragiketa horiek kontrolatzeko.

3. Lege organiko honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira datu pertsonalen tratamendu hauek:

a) Agintaritza eskudunek 1. artikuluan aurreikusitakoez bestelako helburuetarako egindako tratamenduak, barnean direla interes publikoko arrazoiengatik, ikerketa zientifikoko edo historikoko arrazoiengatik edo estatistika-arrazoiak direla tarteko datuak artxibatze egindakoak. Mota horretako tratamenduak egitean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduan —pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, haien datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen du— eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa beteko da.

b) Europar Batasunaren Tratatu V. tituluko II. kapituluaren aplikazio-eremuan sartzen diren jardueren eremuan Estatuko Administrazio Orokorreko organoek egiten dituzten tratamenduak.

c) Europar Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremutik kanpoko jardueri eragiten dietenak.



d) Gai sailkatuei buruzko araudia bete behar duten tratamenduak; besteak beste, defentsa nazionalari buruzkoak.

e) Prozesu penalei lotutako akzio zibiletan, administrazio-prozeduretan edo beste edozein motatako prozeduretan egindako tratamenduak, baldin eta ez badute xede zuzentzat 1. artikuluan aipatutako helburuetako bat ere.

4. Hilda dauden pertsonen buruzko datuen tratamenduei ez zaie lege organiko hau aplikatuko, hargatik eragotzi gabe hurrengo artikuluan ezarritakoa.

### 3. artikulua. *Hilda dauden pertsonen buruzko datuak.*

1. Hilarekin familia-lotura edo izatezko lotura dutenek edo haren jaraunse direnek hildakoaren datuak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko eskaera egin diezaizkete tratamenduaren arduradunari edo eragileari. Eskubide horiek lege organiko honetan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

2. Hila adingabea denean, haren ordezkari legalek edo Fiskaltzak ere egikaritu ahalko dituzte ahalmen horiek; fiskaltzak bere eskumenen esparruan jardungo du, ofizioz edo edozein interesdunek eskatuta.

3. Hila desgaitasuna duen pertsona denean, ahalmen horiek aurreko apartatuan adierazitako pertsonak ez ezik laguntza-eginkizunetarako izendatu den pertsonak ere egikaritu ahalko ditu, hark eskaintako laguntza-neurrien barruko ahalmentzat hartzen badira.

### 4. artikulua. *Agintaritza eskudunak.*

1. Lege organiko honen ondorioetarako, agintaritza eskudun izango dira 1. artikuluan aurreikusitako helburuetako batekin datu pertsonalak tratatzeko eskumenak legez esleituta dituzten agintaritza publikoak.

Zehazki, agintaritza hauek hartuko dira halakotzat, zein bere eskumenen esparruan:

- a) Segurtasun Indar eta Kidegoak
- b) Espetxeetako administrazioak
- c) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren mendeko Aduana Zaintzako Zuzendaritza Ondokoa
- d) Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordearen Zerbitzu Exekutiboa
- e) Terrorismoa Finantzatzeko Jarduerak Zaintzeko Batzordea

2. Agintaritza eskudun izango dira, halaber, jurisdikzio-ordena penaleko agintaritza judizialak eta Fiskaltza.

### 5. artikulua. *Definizioak.*

Lege honetan, hemen adierazten den bezala ulertuko dira hitz hauek:

a) «datu pertsonalak»: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifikatzaile pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datu batzuk, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago.

b) «tratamendua»: datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa edo eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabili zein erabili gabe; hala nola datuak biltzea, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezereztea edo suntsitzea.

c) «tratamendua mugatzea»: kontserbatutako datu pertsonalak markatzea, gerora haien tratamendua mugatzeko.

d) «profilak egitea»: datu pertsonalen tratamendu automatizatu oro, pertsona fisiko baten datu pertsonalak erabiliz haren alderdi pertsonal batzuk ebaluatzea bilatzen duena, batez ere pertsona fisiko horren errendimendu profesionala, egoera ekonomikoa, osasuna, lehenetsun pertsonalak, interesak, fidagarritasuna, portaera, kokapena edo mugimenduak analizatzeko edo aurreikusteko.

e) «seudonimizazioa»: informazio osagarria erabili ezean datu pertsonalak interesdun jakin bati ezin egoztea posible egiten duen datu pertsonalen tratamendua, betiere informazio osagarri hori bereiz mantentzen bada eta datu pertsonalak pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati ez zaizkiola egotziko bermatzen duten neurri tekniko eta antolaketa-neurriak betetzen baditu.

f) «fitxategia»: irizpide zehatz batzuen arabera irispidean dagoen datu pertsonalen multzo egituratu oro, izan multzo zentralizatua, deszentralizatua edo modu funtzional nahiz geografiko batean sakabanatua.

g) «tratamenduaren arduraduna»: bakarrik edo beste batzuekin batera datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta bitartekoak erabakitzen dituen agintaritza eskuduna; Europar Batasuneko Zuzenbideak edo Espainiako legeriak erabakitzen baditu tratamenduaren helburuak eta bitartekoak, arau horiek ezarri ahalko dute edo nor izango den tratamenduaren arduraduna edo zer irizpide erabiliko diren hura izendatzeko.

h) «tratamendu-eragilea»: tratamenduaren arduradunaren izenean datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako organismoa.

i) «hartzailea»: datu pertsonalak hartzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako organismoa, hirugarrena izan ala ez. Dena dela, ez dira hartzailetzat hartuko Espainiako edo Europar Batasuneko legeria betez egiten den ikerketa jakin baten barruan datu pertsonalak jaso ditzaketen agintaritza publikoak; aipatutako agintaritza publikoek, datu horiek tratatzean, tratamenduaren helburuei aplikatzekoak zaizkien datu-babesari buruzko arauak bete beharko dituzte.

j) «datu pertsonalen segurtasuna urratzea»: transmititutako, kontserbatutako edo beste moduren batez tratatutako datu pertsonalak ustekabean edo legez kontra suntsitzea, galtzea edo aldatzea, edo datuok baimenik gabe lagatzea edo irispidean jartzea.

k) «datu genetikoak»: pertsona fisiko batek heredatu edo eskuratu dituen ezaugarri genetikoei buruzko datu pertsonalak, pertsona horren fisiologia edo osasunaren gaineko informazio eskusiboa ematen dutenak, bereziki kasuan kasuko pertsonaren lagin biologiko baten analisitik atereak.

l) «datu biometrikoak»: tratamendu tekniko espezifikoko baten bitartez lortutako datu pertsonalak, pertsona fisiko baten ezaugarri fisiko, fisiologiko edo portaerazkoei buruzkoak, eta pertsona horren identifikazio eskusiboa ahalbidetu edo berresten dutenak; esate baterako, aurpegiaren irudiak edo datu daktiloskopikoak.

m) «osasunari buruzko datuak»: pertsona fisiko baten osasun fisikoari edo mentalari buruzko datu pertsonalak, osasun-arretaren prestazioa barne, haren osasun-egoeraren gaineko informazioa jakinarazten dutenak.

n) «nazioarteko antolakundea»: nazioarteko zuzenbide publikoko nazioarteko antolakunde bat eta haren mendeko enteak, edo bi herrialdek edo gehiagok akordio baten bitartez edo akordio baten ondorioz sorturiko beste edozein organismo.

## II. KAPITULUA

### Printzipioak, tratamenduaren zilegitasuna eta bideozaintza

#### 1. atala. *Printzipioak eta tratamenduaren zilegitasuna*

#### 6. artikulua. *Datu pertsonalen tratamenduari buruzko printzipioak.*

1. Printzipio hauek bete behar dituzte datu pertsonalek:

- a) Leialtasunez eta zilegitasunez tratatuko dira.
- b) Helburu zehatz, esplizitu eta legitimoetarako bilduko dira, eta ez dira tratatuko helburu horiekin bateraezinak diren xedeetarako.
- c) Egokiak eta beharrezkoak izango dira, eta ez dira gehiegizkoak izango tratamenduaren helburuak aintzat hartuta.
- d) Zehatzak izango dira; eta, hala beharko balitz, eguneratuak. Arrazoizko neurri guztiak hartuko dira, bidegabeko atzerapenik gabe ezerezteko edo zuzentzeko tratamenduaren helburuei begira zehaztugabeak diren datu pertsonalak.
- e) Datuak gorde egin behar dira, interesdunak identifikatzeko modua egon dadin; beharrezkoa den epeaz kontserbatuko dira, ez luzeagoz, datuak zer helbururekin tratatu diren kontuan izanda.
- f) Behar bezala segurtaturik egoteko moduko tratamendua jasoko dute datu pertsonalek, barnean direla baimenik gabeko edo legez kontrako tratamenduaren aurkako babesa eta datuok ustekabeen galdu, suntsitu edo kaltetzearen aurkako babesa. Horretarako, behar bezalako neurri teknikoak eta antolaketakoak erabiliko dira.

2. Agintaritza eskudunek bildutako datu pertsonalak ez dira tratatuko 1. artikuluan ezarritakoez bestelako helburuetarako, non eta Europar Batasuneko Zuzenbideak edo Espainiako legeriak ez duten tratamendu hori egiteko baimenik ematen. Datu pertsonalak beste helburu batzuetarako tratatzen direnean, Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa aplikatuko dira, salbu eta tratamendua Europar Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen den jarduera baten barruan egiten bada.

3. Arduradun berak edo beste batek tratatu ahalko ditu datu pertsonalak, bildu direnez bestelako helburuetarako —1. artikuluan ezarrita daude helburuok—, bi baldintza hauek betetzen badira:

- a) Europar Batasuneko Zuzenbidearekin edo Espainiako legeriarekin bat etorritz, tratamenduaren arduradunak datuak beste helburu horretarako tratatzeko eskumena izatea.
- b) Europar Batasuneko Zuzenbidearekin edo Espainiako legeriarekin bat etorritz, tratamendua beste helburu hori lortzeko beharrezkoa eta neurrikoa izatea.

4. Arduradun berak edo beste batek egindako tratamenduaren barruan sar daitezke interes publikoko arrazoiak direla medio datuak artxibatzea eta datuen erabilera zientifikoa, estatistikoa edo historikoa egitea 1. artikuluan ezarritako helburuetarako, interesdunen eskubideak eta askatasunak behar bezala bermatuta.

5. Tratamenduaren arduradunak artikulua honetan ezarritakoa betetzen dela bermatu behar du, eta hori hala dela frogatzeko moduan egon behar du.

#### 7. artikulua. *Laguntzeko eginbeharra.*

1. Administrazio publikoek, baita pertsona fisikoek eta juridikoek ere, arau-hauste penalak ikertzeko eta epaitzeko edo zigorrak betearazteko beharrezkoak diren datuak, txostenak, aurrekariak eta frogagiriak emango dizkiete agintaritza judizialei, Fiskaltzari edo Polizia Judizialari, halakorik eskatzen badiete. Polizia Judizialak uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 549.1 artikulua agintzen dizkion egitekoak betetzeko

ezinbestekoak diren datuak soilik eskatuko ditu; eskaerak arrazoituak, zehatzak eta espezifikoak izan beharko dute, eta horien berri emango zaio agintaritzak judizial eta fiskalari.

Zerga Administrazioak, Gizarte Segurantzaren Administrazioak eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak datuak, txostenak, aurrekariak eta egiaztagiriak lagatzen dituztenean, kasuan-kasuan dagokion legeria beteko dute.

2. Gainerakoetan, administrazio publikoek, baita pertsona fisikoek eta juridikoek ere, datuak, txostenak, aurrekariak eta egiaztagiriak emango dizkiete eskatzen dituzten agintaritzak eskudunei, baldin eta horiek beharrezkoak badira agintaritzek beren misioak bete ditzaten, hau da, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko eta ikertzeko eta segurtasun publikorako arrisku errealak eta larriak prebenitzeko eta arriskuotatik babesteko. Agintaritzak eskudunak egiten duen eskaerak zehatza eta espezifikoa izan behar du, eta adierazitako kasuekin zerikusia duela egiaztatze moduan arrazoituta egon behar du.

3. 1. artikuluan ezarritako helburuak betetzeko beharrezkoak diren datuak bildu ahal izateko lege baimen judiziala behar denean, ez da aplikatuko aurreko apartatueta xedatutakoa.

4. Aurreko apartatueta aurreikusitako kasuetan, interesdun baten datuak agintaritzak eskudunei transmititu bazaizkie edo beste moduren batean datuok irispidean izateko aukera eman bazaie, ez zaio horren berri emango interesdunari, ikerketa-jarduerak bermatzeko.

Asmo horri begira, 1. artikuluko helburuak bete daitezzen ordenamendu juridikoak subjektu jakin batzuei ezartzen badie agintaritzak eskudunei laguntzeko egin beharra, subjektu horiek ez diote interesdunari jakinaraziko beraren datuak agintaritzak horiei transmititu dizkietela, ez eta beren obligazioa betetzeko beste moduren batean datuok irispidean izateko aukera eman dietela ere.

#### 8. artikulua. *Kontserbatzeko eta berrikusteko epeak.*

1. Tratamenduaren arduradunak erabakiko du zer denboraz kontserbatu behar diren datu pertsonalak; 1. artikuluan aurreikusitako helburuak betetzeko behar den denboraz gorde behar dira, ez luzeagoz.

2. Tratamenduaren arduradunak bere erantzukizunpeko tratamendu-jardueretan jasotako datu pertsonalak kontserbatzeko, mugatzeko edo ezerezteko beharra berrikusi behar du, hiru urtean behin gehienez ere, eta berrikuspen bakoitzean bereziki erreparatuko die ukitutako pertsonaren adinari eta datuen izaerari, eta, halaber, bereziki kontuan hartuko du ikerketa edo prozedura penala amaitu ote den. Ahal bada, behar bezalako tratamendu automatizatuaren bidez egingo da berrikuspena.

3. Oro har, datuak ezerezteko gehieneko epea hogeitau urtekoa izango da, salbu eta faktore hauetakoren bat tartean denean: ikerketaren bat irekita dagoenean edo delituen bat preskribatu gabe dagoenean, zigorraren betearazpena amaitu ez denean, berrerortzea izan denean, biktimak babestu behar direnean edo 1. artikuluko helburuak bete daitezzen datuak tratatu beharra dakarten beste inguruabar arrazoitu batzuk tartean direnean.

#### 9. artikulua. *Interesdunak kategoriaka bereiztea.*

Tratamenduaren arduradunak, ahal den neurrian, interesdun-kategoriari dagozkien datu pertsonalak honela bereiziko ditu, besteak beste:

- a) Arrazoi oinarridunen arabera, ustez, arau-hauste penalen bat egin duten, egin dezaketen edo egiten lagundu dezaketen pertsonak.
- b) Arau-hauste penalen bat egiteagatik kondenatutako edo zehatutako pertsonak.
- c) Arau-hauste penalen baten biktima direnak edo izan daitezkeenak edo arau-hauste penalen batek ukitzen dituen edo uki ditzakeen pertsonak.
- d) Arau-hauste penalen batean tarteko diren hirugarrenak; esate baterako, hauek: geroagoko arau-hausteekin edo prozesu penalekin lotutako ikerketetan lekuko gisa zitatekoak.

ditzaketen pertsonak, arau-hausteei buruzko informazioa eman dezaketenak, edo a) edo b) letretan aipatutako pertsonekin harremana edo lotura dutenak.

Aipatutakoak ez du eragotzi behar errugabetasun-presuntziorako eskubidea aplikatzea, Konstituzioaren 24. artikulua bermatzen duen eran.

#### 10. artikulua. *Datu pertsonalen kalitatea egiaztatzea.*

1. Tratamenduaren arduradunak, ahal den neurrian, bereizi egingo ditu egitateetan oinarritutako datu pertsonalak eta iritzi pertsonaletan oinarritutakoak.

2. Agintaritzak eskudunek arrazoizko neurri guztiak hartuko dituzte bermatzeko datu pertsonal zehaztugabeak, osatugabeak edo eguneratu gabeak ez zaizkiela hirugarrenei transmititzen edo ez direla haien esku jartzen. Datu-transmisio orotan, datuak jakinarazteaz batera, kalitatezkoak eta zehatzak diren eta eguneratuta dauden baloratuko da.

Ahal den heinean, datu pertsonalen transmisio guztietan, behar den informazioa erantsiko da, agintaritzak eskudun hartzaileak balora dezan zenbateraino diren zehatzak, osoak eta fidagarriak, eta zenbateraino dauden eguneratuta. Era berean, transmisioa egiten duen agintaritzak eskudunak, ahal den neurrian, datu pertsonalen kalitatea kontrolatuko du datuak transmititu edo hirugarrenei esku jarri aurretik.

3. Ikusten bada transmititutako datu pertsonalak ez direla zuzenak edo legez kontra transmititu direla, inguruabar horien berri emango zaio hartzaileari, bidegabeko atzerapenik gabe. Kasu horretan, datuak zuzendu edo ezereztu egin beharko dira, edo, bestela, tratamendua mugatu beharko da, 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

#### 11. artikulua. *Tratamenduaren zilegitasuna.*

1. Tratamendua zilegia izango bada, 1. artikuluan adierazitako helburuetako bat betetzeko beharrezkoa izan behar du, eta, gainera, agintaritzak eskudun batek egin behar du, bere eginkizunak betetzen ari dela.

2. Lege organiko honen aplikazio-eremuan sartzen diren helburuak betetzeko tratamenduak arautzen dituzten legeetan, gutxien-gutxienez, tratamenduaren xedea, tratatu beharreko datu pertsonalak eta tratamenduaren helburuak adierazi behar dira.

#### 12. artikulua. *Tratamenduaren baldintza espezifikokoak.*

1. Europar Batasuneko Zuzenbideak edo Espainiako legeriak tratamenduari aplikatu dakizkiokeen baldintza espezifikokoak aurreikusten baldin baditu, datuak transmititzen dituen agintaritzak eskudunak baldintza horien berri eman beharko dio datuen hartzaileari, eta baldintzak errespetatzeko betebeharra duela jakinarazi beharko dio.

2. Tratamenduaren baldintza espezifikokoak izan daitezke, besteak beste, datuak transmititzeko debekua edo datuak transmititu ziren helbururako ez beste batzuetarako erabiltzeko debekua, edo, informaziorako eskubidea mugatuz gero, transmisioa egiten duen agintaritzaren baimenik gabe interesdunari informazioa emateko debekua.

3. Datu-transmisioa egiten duen agintaritzak eskudunak Espainia barruko datu-transmisioei aplikatzekoak zaizkien baldintza berak aplikatuko dizkie Europar Batasuneko beste estatu kide batzuek egiten dituzten antzeko datu-transmisioen hartzaileei, baita Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren hirugarren zatiko V. tituluaren 4. eta 5. kapituluetan ezarritako organismoek, agentziek edo organoek egiten dituzten antzeko datu-transmisioen hartzaileei ere.

#### 13. artikulua. *Datu pertsonalen kategoria berezien tratamendua.*

1. Pertsonen jatorri etnikoa edo arraza-jatorria, iritzi politikoak, sinesmen erlijiosoak edo filosofikoak edo afiliazio sindikala adierazten duten datu pertsonalen tratamenduak, datu genetikoaren tratamenduak, pertsona fisiko bat modu unibokoan identifikatzeko erabiltzen diren datu biometrikoen tratamenduak eta pertsona fisikoaren osasunari, sexu-bizitzari edo sexu-orientazioari buruzko datuen tratamenduak behar-beharrezkoak

direnean soilik baimenduko dira, interesdunaren eskubide eta askatasunak behar bezala bermatuta, eta betiere honako inguruabar hauetako bat betetzen bada:

- a) Tratamendua lege-mailako arau batean edo Europar Batasuneko Zuzenbidean aurreikusita badago.
- b) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak eta oinarritzko eskubideak eta askatasunak babesteko.
- c) Interesdunak argiro publiko egin dituen datuak badira tratatu beharrekoak.

2. Agintaritza eskudunek, zeinek bere eginkizunen eta eskumenen esparruan, pertsona fisiko bat modu unibokoan identifikatzeko erabiltzen diren datu biometrikoak tratatu ahalko dituzte arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko edo epaitzeko edo zehapen penalak betearazteko, barnean direla segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzea eta mehatxuotatik babestea.

3. Adingabeen datuak, baita gaitasuna judizialki aldatuta duten edo gaitasuna judizialki aldatzeko prozesuetan sartuta dauden pertsonen datuak ere, pertsona horien interes goren eta segurtasun-maila egokia bermatuz tratatuko dira.

#### 14. artikulua. *Banakako erabakiak hartzeko mekanismo automatizatua.*

1. Debekatuta dago tratamendu automatizatu hutsean oinarritutako erabakiak hartzea, profilak egitea barne, baldin eta interesdunarentzat ondorio juridiko negatiboak ekartzen badituzte edo interesdunari modu esanguratsuan eragiten badiote, salbu eta lege-mailako arau batek edo Europar Batasuneko Zuzenbideak mota horretako erabakiak hartzeko baimen espresua ematen badu. Tratamendua egiteko gaikuntza ematen duen arauak neurri egokiak ezarri beharko ditu interesdunaren eskubideak eta askatasunak babesteko, barnean dela erabakia berrikusteko prozesuan gizakiak esku hartzeko eskubidea.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren erabakiak ez dira oinarrituko datu pertsonalen kategoria berezietan —13. artikuluan jasoak—, salbu eta interesdunaren eskubideak, askatasunak eta interes legitimoak babesteko neurri egokiak hartu badira.

3. Debekatuta dago datu pertsonalen kategoria bereziak —13. artikuluan jasoak— oinarritzat hartuta pertsona fisikoak diskriminatzea eragiten duten profilak egitea.

#### 2. atala. *Datu pertsonalen tratamendua Segurtasun Indar eta Kidegoek egindako bidezaintzaren eremuan*

#### 15. artikulua. *Segurtasun Indar eta Kidegoek irudiak eta soinuak grabatzeko sistemak.*

1. Segurtasun Indar eta Kidegoek lege organiko honetan aurreikusitako baldintzetan datu pertsonalak biltzeak, erreproduzitzeak eta tratatzeak edo horretarako prestatzeko egin beharreko jarduerak egiteak ez du esan nahi bidegabe esku sartu denik ohorerako eskubidean, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidean eta norberaren irudirako eskubidean, maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzkoa) 2.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

2. Proporzionaltasun-printzipioarekin bat, irudiak eta soinuak grabatzeko sistemak instalatzean, irizpide hauek hartuko dira kontuan: eraikin eta instalazio propioen babes zuzenbideko; eraikin eta instalazio publikoen eta instalazio horien zaintzapeko sarbideen babes zuzenbideko; segurtasun nazionalerako erabilgarriak diren instalazioak zaintzea eta babestea; arau-hauste penalak prebenitzea, detektatzea edo ikertzea, eta segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzea eta mehatxuotatik babestea.

#### 16. artikulua. *Sistema finakoak instalatzea.*

1. Bide edo leku publikoetan bideokamera finakoak instalatzean, tratamenduaren arduradunak proporzionaltasun-printzipioa bete den baloratu behar du; hau da, baloratu

behar du printzipio horren bi alderdiak, egokitasuna eta gutxieneko esku-hartzea, bete diren. Era berean, egin beharreko tratamenduak datuen babeserako ekar ditzakeen arriskuen analisia edo tratamendu horrek datu-babesaren gainean izan dezakeen inpaktuaren ebaluazioa egin behar du arduradunak; horretarako, kontuan hartu behar du zenbateko kaltea eragin diezaiekeen tratamenduak herritarrei, eta zer helburu lortu nahi den tratamenduarekin.

Bideokamera finkotzat hartuko da euskarri finko batean edo fatxada batean ainguratuta dagoena, grabazio-sistema edozein norabidetan mugitzeko aukera badago ere.

2. Xedapen hau aplikatuko da, halaber, Segurtasun Indar eta Kidegoek beren titulartasunekoak ez diren bideokamera-instalazio finkoak erabili eta, horrez gain, datuak tratatzeko prozesu osoa haiek kontrolatzen eta zuzentzen dutenean.

3. Toki-entitateek ez dituzte bideokameren instalazio finkoak kontrolatuko beren oinarritzko legerian aurreikusitako prebentziorako kontrolaren barruan, eta, halaber, instalazio horiek ez dira egongo administrazio publikoek beren eskumenak egikaritzearen mende. Nolanahi ere, sistema finkoak instalatzean, administrazio-jardunaren eremu material bakoitzean indarrean dagoen legeriaren printzipioak errespetatu behar dira.

4. Bideokameren instalazio finkoen jabeek eta, hala badagokio, baita instalazio horiei lotutako ondasunen gaineko eskubide errealeen titularrek edo edozein tituluren bidez ondasun horien jabe direnek ere, instalazioa eta haren mantentze-lanak egiteko baimena eman behar dute, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren kalte-ordainak jasotzea.

5. Herritarrei modu argi eta iraunkorrean jakinaraziko zaie bideokamera finkoak daudela, non dauden zehaztu gabe, eta jakinaraziko zaie zein agintaritzaren aurrean —tratamenduaren arduradun den agintaritza— egikaritu ditzaketen beren eskubideak.

#### 17. artikulua. *Gailu mugikorrak.*

1. Irudiak eta soinua hartzeko gailu mugikorrak erabili ahal izango dira lege organiko honetan aurreikusitako helburuak ahalik eta ondoen betetzeko, Segurtasun Indar eta Kidegoen eskumen espezifikoeekin bat. Irudia eta soinua batera hartu behar dira, eta bakar-bakarrik arriskuren bat edo ezbeharren bat gertatuz gero. Gobernuaren Ordezkaritzaren edo Ordezkariordeztaren titularrak eman beharko du gailu mugikorrak erabiltzeko baimena, eta, horretarako, filmatu nahi diren gertakariak zer-nolakoak diren ikusita, tratamenduaren printzipioetara eta proportzionaltasun-printzipiora egokituko du gailuen erabilera.

Pertsonak eta ondasunak babesteko eta ordena publikoa zaintzeko eskumenak dauzkaten eta egikaritzen dituzten autonomia-erkidegoetako polizia-kidegoen kasuan, autonomia-erkidego bakoitzean dagokion organoak eman behar du baimena bai autonomia-erkidegoetako polizia-indarrek eta bai kasuan kasuko autonomia-erkidegoaren lurraldean dauden toki-korporazioen mendeko polizia-indarrek mota horretako jarduketak egin ditzaten.

2. Ezingo da gailu mugikorrak erabiltzeko baimen mugagaberik edo iraunkorrik eman; aitzitik, unean uneko arriskuaren edo ezbeharren izaera edo inguruabarrak aintzat hartuta egokia den epeaz emango dira baimenak, askoz jota hilabetez —epe hori beste hilabetez luza daiteke—.

3. Urgentziazko kasuetan edo premia geroraezina dagoenean, Segurtasun Indar eta Kidego eskudunen arduradun operatiboak erabaki ahal izango du gailu mugikorrak erabiltzea. Lehenbailehen eta gehienez ere 24 orduko epean eman beharko zaio jarduketa horren berri Gobernuaren ordezkaritari edo ordezkariordeari, edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko agintari eskudunari.

#### 18. artikulua. *Irudien tratamendua eta kontserbazioa.*

1. Lege organiko honetan ezarritako betekizunen arabera filmazioa egin eta arau-hauste penaltzat har daitekeen egitaterik grabatzen bada, Segurtasun Indar eta Kidegoek irudien eta soinuen zinta edo euskarri orijinal osoa epailearen esku jarriko dute lehenbailehen, eta, betiere, grabatzen direnetik gehienez ere hirurogeita hamabi orduko

epean. Epe horretan atestatua idazterik ez badago, egitateak ahoz jakinaraziko zaizkio agintaritza judizialari edo Fiskaltzari, grabazioa emateaz batera.

2. Segurtasun publikoarekin zerikusia duen arau-hauste administratibo baten irudiak hartzen badira, organo eskudunari igorriko zaizkio berehala, kasuan-kasuan dagokion zehapen-prozedura has dezan.

3. Irudiak hartu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean suntsituko dira grabazioak, non eta grabatutakoa ez den polizia-ikerketa bat edo prozedura judizial edo administratibo bat abian duen segurtasun publikoaren arloko arau-hauste penal edo administratibo astun edo oso astun bat.

#### 19. artikulua. *Diziplina-araubidea.*

1. Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek lege organiko honetan xedatutakoa urratzen badute, kasuan kasuko arau-hausleei dagokien diziplina-araubidearen arabera zehapena jarriko zaie, eta, halakorik ezean, lege organiko honetan ezartzen den datu pertsonalak babesteko zehapen-araubide orokorrari jarraituko zaio, hargatik eragotzi gabe arau-hausteak erantzukizun penalak ekar diezazkiekeela.

2. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen diziplina-araubidearen arabera, falta oso astuntzat hartuko dira arau-hauste hauek:

a) Irudien eta soinuen erregistroak aldatzea edo manipulatzeari, betiere horrek delitua ez badakar.

b) Grabatutako irudiak eta soinuak irispidean izateko aukera ematea baimendu gabeko pertsonari, edo irudiok eta soinuok legez aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabiltzea.

c) Irudiak eta soinuak erreproduzitzea lege organiko honetan aurreikusitakoez bestelako helburuetarako.

d) Lege organiko honetan araututako bitarteko teknikoak erabiltzea Legean aurreikusitakoez bestelako helburuetarako.

### III. KAPITULUA

#### Pertsonen eskubideak

##### 1. atala. *Araubide orokorra*

#### 20. artikulua. *Interesdunek beren eskubideak egikaritzeko baldintza orokorrak.*

1. Tratamenduaren arduradunak 21. artikuluan jasotako informazio guztia eman beharko dio interesdunari, bai eta 14., 22., 26. eta 39. artikuluetatik ondorioztatutakoa ere, modu labur, ulergarri eta iristerrazean eta pertsona guztientzako, baita desgaitasuna duten pertsonentzako ere, argia eta erraza den hizkera erabiliz.

Horrez gain, tratamenduaren arduradunak behar diren neurriak hartu beharko ditu interesdunak 14. artikuluan eta 22.etik 26.era bitarteko artikuluetan xedatutako eskubideak egikaritu ditzakeela bermatzeko.

2. Interesdunak, zeinak jarduteko gaitasuna izango baitu, bere izenean eta bere burua ordezkatzuz jardun ahal izango du, edo, bestela, ordezkarien bidez, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzko araudian aurreikusitakoari jarraituz.

3. Informazioa edozein bitarteko egoki erabiliz emango da, baita bitarteko elektronikoen bidez ere, eta, ahal bada, eskaeran erabilitako bitarteko bera baliatuko da informazioa emateko.

4. Tratamenduaren arduradunak idatziz jakinaraziko dio interesdunari, bidegabeko atzerapenik gabe, zer izapide eman zaion eskaerari. Eskabidea ezetsizat joko da baldin eta, aurkeztu eta hilabete igaro ondoren, ez bada espresuki ebatzi eta ez bazaio interesdunari jakinarazi.



5. 1. apartatuan aipatutako informazioa doan emango da. Interesdun baten eskabideak argi eta garbi funsgabeak edo neurrigabeak direnean, batik bat errepikakorrak direla-eta, tratamenduaren arduradunak izapidetzeko ez onartzea erabaki dezake, ebazpen arrazoitu bidez.

Tratamenduaren arduradunak eskabidea argi eta garbi funsgabea edo neurrigabea dela frogatu behar du.

Nolanahi ere, eskabidea errepikakorra dela joko da sei hilabeteko epean kasu berari buruzko hiru eskaera egiten direnean, non eta ez dagoen horretarako arrazoi legitimorik.

6. Tratamenduaren arduradunak arrazoizko zalantzak baditu 22. eta 23. artikuluetan aipatzen denaren moduko eskabidea egiten duen pertsona fisikoaren identitateari buruz, errekerimendua egingo dio, hamar eguneko epean haren identitatea berresteko beharrezkoa den informazio osagarria eman dezan. Epe horretan informaziorik aurkezten ez badu, eskabidean atzera egin duela joko da ebazpen arrazoitu bidez. 4. apartatuan aipatzen den epea informazio osagarri hori ematen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

21. artikulua. *Interesdunaren esku jarri beharreko informazioa.*

1. Datu-tratamenduaren arduradunak hau jakinaraziko dio interesdunari, gutxien-gutxienez:

- a) Tratamenduaren arduraduna nor den, eta harekin harremanetan jartzeko datuak zein diren.
- b) Datuak babesteko ordezkaririk badago, harekin harremanetan jartzeko datuak zein diren.
- c) Datu pertsonalen tratamenduak zer helburu dituen.
- d) Datuak babesteko agintaritza eskudun baten aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea duela, eta harekin harremanetan jartzeko datuak zein diren.
- e) Eskubidea duela tratamenduaren arduradunari beraren datu pertsonaletara irispidea eman diezaion eskatzeko, bai eta datuok zuzendu edo ezereztu daitezzen edo haien tratamendua mugatu dadin eskatzeko ere.

2. 1. apartatuan aipatzen den informazioaz gain, tratamenduaren arduradunak, kasuan kasuko inguruabarrak aintzat hartuta, informazio gehigarri hau emango dio interesdunari, bere eskubideak egikaritzeko aukera izan dezan:

- a) Tratamenduaren oinarri juridikoa.
- b) Datu pertsonalak noiz arte kontserbatuko diren edo, hori ezinezkoa bada, epe hori zehazteko zer irizpide erabiliko diren.
- c) Datu pertsonalen hartzaileen kategoriak, hala badagokio, batik bat Europar Batasunetik kanpoko estatuetan edo nazioarteko antolakundeetan kokatutako hartzaileenak.
- d) Beharrezkoa izanez gero, beste edozein informazio, bereziki interesdunak jakin gabe bildu badira datu pertsonalak.

22. artikulua. *Interesdunak bere datu pertsonalak irispidean izateko eskubidea.*

1. Interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunak berrets diezaion berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez. Tratamendua egiten ari dela egiaztatzen bada, interesdunak eskubidea izango du datu pertsonalak irispidean izateko, baita informazio hau ere:

- a) Tratamenduaren helburuak eta oinarri juridikoa zein diren.
- b) Kasuan kasuko datu pertsonalak zer kategoriatakoak diren.
- c) Datu pertsonalak laga zaizkion hartzaileak edo hartzaile-kategoriak zein diren, batez ere Europar Batasuneko edo nazioarteko antolakundeetako kideak ez diren estatuetan ezarrita dauden hartzaileak badira.

d) Ahal bada, datu pertsonalen kontserbazio-epea zein den, edo, bestela, zer irizpide erabili diren epe hori zehazteko.

e) Eskubidea duela berari buruzko datu pertsonalak zuzendu edo ezereztu ditzala edo datuen tratamendua mugatu dezala eskatzeko tratamenduaren arduradunari.

f) Datuak babesteko agintaritza eskudunari erreklamazioa aurkezteko eskubidea duela.

g) Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak, eta datu horien jatorriari buruz eskuragarri dagoen edozein informazio. Ez da emango pertsona fisikoen identitatearen berri, batik bat iturriak isilpekoak badira.

2. Arduradunak interesdunari buruzko informazio asko tratatzen badu eta, horrez gain, interesdunak datuak irispidean izateko eskubidea egikaritzen badu, datu batzuk edo guztiak nahi dituen zehaztu gabe, zer behar duen zehaztu dezala eskatu ahalko dio arduradunak, hamar eguneko epean.

3. Datuak irispidean izateko eskubidea egikaritzea onartu dela joko da tratamenduaren arduradunak interesdunari urruneko sistema zuzena eta segurua eskuratu badio, zeinak bermatuko baitio, etengabe, bere datu pertsonal guztietarako irispidea izatea. Sistema hori erabiliz hasten bada prozedura bat, horren berri emango zaio interesdunari, eta pertsona horrek datuak irispidean izateko beste eskabiderik egin badu beste bitarteko batzuen bidez, ukatu ahal izango zaio.

Urrutiko sistemaren bidez ez bada 1. apartatuan jasotako informazio guztia ematen, interesdunak falta den informazioa eskatzeko eskubidea izango du.

4. Interesdunak proposatu zaizkion bitartekoak ez beste bat aukeratzen badu eta haren kostua neurritz kanpoko bada, eskaera gehiegizkoa dela joko da, eta interesdunak berak hartu beharko du bere gain hautuaren gehiegizko kostua. Kasu horretan, tratamenduaren arduradunari exijitu beharreko gauza bakarra da proposatutako bitartekoa erabiliz datuak irispidean izateko eskubidea egikaritzeko aukera eman diezaiola interesdunari, bidegabeko atzerapenik gabe. Interesdunak ez badu gehiegizko kostua bere gain hartzen, tratamenduaren arduradunak hasiera batean proposatutako bitartekoa erabiliz emango zaio irispidea.

### 23. artikulua. *Datu pertsonalak zuzentzeko eta ezerezteko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideak.*

1. Interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunak beraren datu pertsonalak zuzendu ditzan, bidegabeko atzerapenik gabe, datuok okerrak direnean.

Tratamenduaren helburuak kontuan hartuta, interesdunak eskubidea izango du berari buruz dauden datu pertsonal osatugabeak osa daitezen.

Interesdunak, eskabidean, behar bezala adierazi beharko du zein daturi buruz ari den eta zein zuzenketa egin behar den. Eskabidearekin batera, beharrezko bada, tratatzen ari diren datuak osatugabeak direla edo ez direla zehatzak justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da.

2. Tratamenduak 6., 11. edo 13. artikulua urratzen baditu edo tratamenduari aplikatu beharreko legezko betebeharen ondorioz datu pertsonalak ezereztu behar badira, tratamenduaren arduradunak, bere ekimenez edo datuak ezerezteko interesdunak duen eskubidea egikaritzearen ondorioz, datuok ezereztuko ditu, bidegabeko atzerapenik gabe, inguruabarren berri izan eta gehienez ere hilabeteko epean.

3. Inguruabar hauetakoren bat tartean bada, berriz, datu pertsonalak ezereztu beharrean, datuen tratamendua mugatuko du arduradunak:

a) Interesdunak datu pertsonalen zehaztasuna zalantzan jarri eta ezin bada erabaki datuok zehatzak diren ala ez.

b) Datu pertsonalak froga gisa erabiltzeko kontserbatu behar badira.

Baldin eta, a) letran adierazitakoa betetzeko, tratamendua mugatzen bada, tratamenduaren arduradunak horren berri emango dio interesdunari, tratamendua mugatzeari utzi aurretik.

4. Tratamenduaren arduradunak beste agintaritza eskudun batetik datozen datu pertsonal zehaztugabeak zuzentzen baditu, zuzenketaren berri eman beharko dio agintaritza horri.

5. Datu pertsonalak zuzendu edo ezereztu badira edo horien tratamendua mugatu bada, tratamenduaren arduradunak horren berri jakinaraziko die hartzaileei; hartzaileek beren erantzukizunpean dauden datu pertsonalak zuzendu edo ezereztu beharko dituzte, edo, bestela, haien tratamendua mugatu beharko dute.

24. artikulua. *Informazioa jasotzeko, datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideak murriztea.*

1. Tratamenduaren arduradunak 21.2 artikuluan aipatzen den informazioa ematea geroratu edo informazio hori mugatu edo isilean gorde ahalko du, eta, halaber, 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako eskubideak egikaritzeko eskaerak ukatu ahalko ditu, osorik edo partzialki ukatu ere, betiere ukitutako pertsonaren oinarritzko eskubideak eta interes legitimoak aintzat hartuta helburu hauek lortzeari begira beharrezkoa eta proportzionala baldin bada:

- a) Indagazio, ikerketa edo prozedura judizialik ez oztopatzea.
- b) Arau-hauste penalak prebenitzeari, detektatzeari, ikertzeari eta epaitzeari edo zehapen penalak betearazteari kalterik ez egitea.
- c) Segurtasun publikoa zaintzea.
- d) Segurtasun nazionala zaintzea.
- e) Beste pertsona batzuen eskubideak eta askatasunak babestea.

2. Baldin eta 22. eta 23. artikuluetan jasotako eskubideak murrizten badira, tratamenduaren arduradunak horren berri emango dio interesdunari, idatziz, bidegabeko atzerapenik gabe, eta, betiere, murrizketaren berri izan eta gehienez ere hilabeteko epean; halaber, eskubideak murrizteko arrazoiak jakinaraziko dizkio, eta adieraziko dio datuak babesteko agintaritzari erreklamazioa aurkez diezaiokeela, hargatik eragotzi gabe lege organiko honetan xedatutakoari jarraituz beste akzio judizial batzuk egikaritzea.

Eskubideak murrizteko arrazoen berri emateak aurreko apartatuan aipatzen diren helburuak betetzea arriskuan jar dezakeenean, arrazoiak isilean gorde edo idazketa neutroarekin ordeztu ahal izango dira.

3. Tratamenduaren arduradunak dokumentatu egingo ditu informazioa irispidean izateko eskaera ukatzea eragin duten egitatezko edo zuzenbideko oinarriak. Informazio hori datuak babesteko agintaritzen esku egongo da.

25. artikulua. *Interesdunaren eskubideak datuak babesteko agintaritzaren bidez egikaritzea.*

1. Baldin eta 21. artikuluan aipatzen den informazioa ematea geroratzen bada, edo informazio hori mugatzen edo isilean gordetzen bada, edo 22. eta 23. artikuluetan jasotako eskubideen erabilera murrizten bada 24. artikuluan xedatutakoari jarraituz, datuak babesteko agintaritza eskudunaren bidez egikaritu ahal izango ditu interesdunak bere eskubideak. Tratamenduaren arduradunak aukera horren berri emango dio interesdunari.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa betez datuak babesteko agintaritzaren bidez egikaritzen badira eskubideak, agintaritza horrek interesdunari jakinarazi beharko dio, gutxien-gutxienez ere, behar diren egiaztapen guztiak egin direla edo dagokion berrikuspena egin dela eta interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko eskubidea duela.

*2. atala. Araubide berezia*

26. artikulua. *Ikerketa eta prozesu penalen ondorioz interesdunek dituzten eskubideak.*

1. Datu pertsonalak ebazpen judizial batean ageri badira, edo ikerketa eta prozesu penalen barruan izapidetutako erregistro batean edo diligentsia edo espediente batzuetan azaltzen badira, arau prozesal penalak beteko dira aurreko artikuluetan aipatzen diren eskubideak —alegia, informazioa jasotzeko, datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideak— egikaritzean.

2. Datuak helburu jurisdikzionaletan tratatzen badira eta tratamendu horren erantzulea jurisdikzio-ordena penaleko organo bat edo Fiskaltza bada, informazioa jasotzeko, datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideak egikaritzean, uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoari, arau prozesalei eta, hala badagokio, Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoari jarraituko zaie.

3. Eskubide horien egikaritzea aipatutako arauetan erregulatuta ez badago, lege organiko honetan xedatutakoa aplikatuko da.

**IV. KAPITULUA****Tratamenduaren arduraduna eta eragilea***1. atala. Betebehar orokorrak*

27. artikulua. *Tratamenduaren arduradunaren betebeharrak.*

1. Tratamenduaren arduradunak, tratamenduaren izaerari, esparruari, testuinguruari eta helburuei erreparatuta eta datuak tratatzeak pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako zenbateko arriskua dakarren aintzat hartuta, neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak aplikatuko ditu, hartara bermatzeko tratamendua lege organiko hau betez eta legeria sektorialean eta hura garatzeko arauetan xedatutakoari jarraituz egiten dela. Neurriok beharrezkoa denean berrikusi eta eguneratuko dira.

2. Aurreko apartatuan aipatutako neurrien barruan sartuko da datuak babesteko politika egokiak aplikatzea, baldin eta politika horiek tratamendu-jardueretikiko proportzionalak badira.

28. artikulua. *Datuen babesa, diseinutik abiatuta eta lehenetsita.*

1. Tratamendurako bitartekoak zehazteko orduan, bai eta tratamendua egiten den unean bertan, neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak aplikatu beharko dira, teknikaren egoera eta hura aplikatzeak dakarren kostua kontuan izanda, tratamenduaren izaerari, eremuari, testuinguruari eta helburuei erreparatuta eta datuak tratatzeak pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako zer arrisku dakarren aintzat hartuta. Helburua izango da datuak babesteko printzipioak eraginkortasunez babestea, eta, horrez gain, tratamendurako behar diren bermeak aplikatzea. Neurri tekniko horietako bat izan daiteke datu pertsonalak seudonimizatzea, lege organiko honetan ezarritako printzipioak aplikatzen laguntzeko, batez ere datu pertsonalak minimizatzeako printzipioa.

2. Horrez gain, neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien bidez, bermatu behar da datu pertsonalen tratamenduak, besterik adierazi ezean, tratamenduaren helburu espezifiko bakoitzerako beharrezkoak diren datuak bakarrik hartuko dituela. Betebeharren barruan, kontuan hartuko dira jasotzen diren datu pertsonalen kopurua, tratamenduaren hedadura, kontserbazio-epea eta datuen eskuragarritasuna.

Neurri horiek bermatuko dute, besterik adierazi ezean, datu pertsonalak ez direla pertsona kopuru zehaztugabe baten esku jarriko gizakiaren esku-hartzerik gabe.

29. artikulua. *Erantzunkidetasuna tratamenduan.*

1. Tratamenduaren bi arduradunek edo gehiagok tratamenduaren helburuak eta bitartekoak batera zehazten dituztenean, tratamenduaren erantzunkidetzat joko dira.

2. Erantzukizunak Europar Batasuneko Zuzenbidean edo Espainiako legerian aurreikusita ez badaude, tratamenduaren erantzunkideek, gardentasunez, elkarren artean ados jarrita eta dagokion tresna erabiliz zehaztuko dute lege organiko honetan xedatutakoa bete dadin bakoitzak zer erantzukizun izango duen, batik bat interesdunaren eskubideak egikaritzeari dagokionez eta 21. artikuluan aipatutako informazioa emateari lotuta bakoitzak dituen betebeharreri dagokienez.

Akordio horren bidez izendatuko da interesdunen harremanetarako gunea, non eta ez dagoen legez zehaztuta.

Erantzukizunak zehazteko, tratamenduaren erantzunkide bakoitzak benetan zer jarduera egiten dituen hartuko da kontuan.

30. artikulua. *Tratamendu-eragilea.*

1. Tratamendua arduradun baten kontura egiten bada, arduradun horrek arrazoizko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak aplikatzeko berme egokiak eskaintzen dituzten eragileak aukeratuko ditu soilik, hartara bermatzeko tratamendua lege organiko honetako eskakizunekin bat datorrela eta interesdunaren eskubideak babesten direla.

Arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, pribatua zein publikoa.

2. Tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunaren idatzizko baimena behar du beste eragile bat hautatu ahal izateko. Beste eragile batzuk gehitzeari edo dauden eragileak ordezkatzeari dagokionez aurreikusten diren aldaketak jakinaraziko dizkio eragileak arduradunari, eta arduradunak aldaketa horien aurka egiteko aukera izango du.

3. Eragile baten bidezko tratamendua arautzeko, Europar Batasuneko Zuzenbidearen edo Espainiako legeriaren arabera egindako idatzizko kontratu, hitzarmen edo beste tresna juridiko bat erabiliko da, eta dokumentu hori formatu elektronikoan ere egon daiteke. Tresna juridiko horrek eragilea eta arduraduna lotuko ditu, eta han zehaztuko dira tratamenduaren xedea eta iraupena, haren izaera eta helburua, interesdunen datu pertsonal motak eta interesdun-kategoria motak eta tratamenduaren arduradunaren betebeharrak eta eskubideak.

Tresna juridiko horrek, nagusiki, tratamendu-eragilearen betebeharrak hauek xedatuko ditu:

a) Tratamenduaren arduradunaren jarraibideak betetz bakarrik jardungo du.

b) Dagokion tresnen edo sistemaren bidez, bermatuko du datu pertsonalen tratamendua egiteko baimena duten pertsonen konfidentziasuna errespetatzeko konpromisoa hartu dutela edo, bestela, konfidentziasuna edo sekretu profesionala gordetzeko betebeharrak dutela.

c) Tratamenduaren arduradunari lagunduko dio, interesdunaren eskubideei buruzko xedapenak betetzen direla bermatzen duen edozein bitarteko erabiliz.

d) Tratamendu-zerbitzuak amaitutakoan, datu pertsonal guztiak ezereztuko ditu edo, bestela, tratamenduaren arduradunari itzuliko dizkio —tratamenduaren arduradunak erabakiko du bata ala bestea egin behar den—; gainera, dauden kopiak ezereztuko ditu, salbu eta Europar Batasuneko Zuzenbidean edo Espainiako legerian datu pertsonalak kontserbatzeko betebeharrak ezartzen bada.

e) Betebeharrak hauek betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia tratamenduaren arduradunaren esku jarriko du.

f) Apartatu honetan eta 2. apartatuan ezartzen diren beste tratamendu-eragile bat kontratatzeko baldintzak errespetatuko ditu.

4. Tratamendu-eragile batek tratamenduaren helburuak eta bitartekoak erabakitzen baditu lege organiko hau urratuz, tratamenduaren erantzuletzat joko da.

5. Lege organiko honetan aurreikusita ez dagoen guztian, tratamendu-eragileak abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa beteko du.

31. artikulua. *Tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen agindupeko tratamendua.*

Tratamendu-eragileak edo datu pertsonalak irispidean dituen eta tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen agindupean diharduen beste edozeinek ezingo ditu datuok tratatu, arduradunaren jarraibideei kasu eginez baino, non eta Europar Batasuneko Zuzenbideak edo Espainiako legeriak ez duten horretara behartzen.

32. artikulua. *Tratamendu-jardueren erregistroa.*

1. Arduradun bakoitzak bere ardurapean egiten diren datu pertsonalen tratamendu-jarduera guztien erregistroa eraman behar du. Erregistro horretan:

a) Tratamenduaren arduraduna, eta, hala badagokio, tratamenduaren erantzunkidea eta datuak babesteko ordezkaria nor diren adieraziko da, eta figura horiekin harremanetan jartzeko datuak emango dira.

b) Tratamenduaren helburuen berri emango da.

c) Adieraziko da datu pertsonalak zer kategoriatako hartzaileei laga zaizkien edo lagako zaizkien, barnean direla Europar Batasuneko edo nazioarteko antolakundeetako kideak ez diren estatueta hartzaileak.

d) Interesdun-kategorien eta datu pertsonalen kategorien deskribapena jasoko da.

e) Profila egitea erabaki bada, horren berri emango da.

f) Europar Batasuneko edo nazioarteko antolakundeetako kidea ez den estaturen bati datu pertsonalak transferitu bazaizkio, datuok zer kategoriatakoak diren jakinaraziko da.

g) Tratamenduaren oinarri juridikoa adieraziko da, eta, hala badagokio, baita datu pertsonalen nazioarteko zer transferentzia egingo diren ere.

h) Ahal bada, datu pertsonalen kategoriak ezerezteko zer epe aurreikusi diren zehaztuko da.

i) Ahal bada, 37.1 artikuluan aipatzen diren segurtasun-arloko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien deskribapen orokorra jasoko da.

2. Tratamendu-eragile bakoitzak arduradun baten izenean datu pertsonalak tratatzeko egindako jarduera guztien erregistroa eramango du. Erregistroan, informazio hau jasoko da:

a) Tratamendu-eragilearen edo -eragileen izenak eta harremanetarako datuak, bai eta tratamenduaren arduradunenak ere (tratamendu-eragileak horien izenean jarduten du), eta halaber, halakorik badago, datuak babesteko ordezkariarenak.

b) Arduradun bakoitzaren izenean egindako tratamenduen kategoriak.

c) Europar Batasunetik kanpoko estatu bati edo, hala badagokio, nazioarteko antolakunde bati egindako datu pertsonalen transferentziak, barnean dela estatu edo nazioarteko antolakunde horren identifikazioa, tratamenduaren arduradunak berriaz hala agintzen badu estatu edo antolakunde identifikatzeko.

d) Ahal bada, 37.1 artikuluan aipatzen diren segurtasun-arloko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien deskribapen orokorra.

3. Artikulu honetan aipatutako erregistroak idatziz jasoko dira, eta formatu elektronikoan ere egon daitezke.

Erregistroak datuak babesteko agintaritza eskudunak kontsultatzeko moduan egongo dira, hark eskatzen badu, legeak xedatutakoarekin bat.

4. Tratamenduaren arduradunek beren tratamendu-jardueren erregistroa argitaratuko dute. Erregistro hori bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko moduan egongo da, eta 1. apartatuan aipatzen den informazioa jasoko du.

33. artikulua. *Eragiketen erregistroa.*

1. Tratamenduaren arduradunek eta eragileek honako tratamendu-eragiketa hauen erregistroak eraman behar dituzte, gutxienez, tratamendu automatizatuko sistemetan: datuak biltzea, aldatzea, kontsultatzea, lagatzea —transferitzea barne—, eta konbinatzea edo ezereztea. Kontsulta- eta lagapen-erregistroek aukera emango dute eragiketen

justifikazioa, data eta ordua zehazteko, eta, ahal bada, baita datu pertsonalak kontsultatu edo laga zituen pertsonaren izena eta datu-hartzaileen identitatea adierazteko ere.

2. Tratamendua legezkoa den egiaztatzeko, datuak babesteko neurriak eta politikak betetzen direla kontrolatzeko eta prozesu penaletan datu pertsonalen osotasuna eta segurtasuna bermatzeko soilik erabiliko dira erregistro horiek.

Erregistroak datuak babesteko agintaritza eskudunak kontsultatzeko moduan egongo dira, hark eskatzen badu, legeak xedatutakoarekin bat.

#### 34. artikulua. *Datuak babesteko agintaritzekiko lankidetzeta.*

Indarrean dagoen legeria betez, tratamenduaren arduradunak eta eragileak datuak babesteko agintaritza eskudunarekin lankidetzan jardungo dute, azken horrek, bere eginkizunak betetzen ari dela, hala eskatzen badu.

#### 35. artikulua. *Datu-babesaren gaineko inpaktuaren ebaluazioa.*

1. Tratamendu motaren batek, batez ere teknologia berriak erabiltzen baditu, haren izaera, norainokoa, testuingurua edo helburuak direla-eta arrisku handia ekar badiezaieke pertsona fisikoen eskubideei eta askatasunei, aurreikusita dauden tratamendu-eragiketek datu pertsonalen babesean izan dezaketen inpaktuaren ebaluazioa egingo du tratamenduaren arduradunak, datuak tratatu aurretik.

2. Ebaluazioan, gutxienez, aurreikusitako tratamendu-eragiketen deskribapen orokorra, interesdunen eskubide eta askatasunetarako arriskuen ebaluazioa, arrisku horiei aurre egiteko neurriak eta datu pertsonalak babesteko direla eta lege organiko honetan ezarritakoarekin bat tratatu direla frogatzeko segurtasun-neurriak eta mekanismoak jasoko dira. Ebaluazioa egitean, interesdunen eta ukitutako gainerako pertsonen eskubideei eta interes legitimoiei erreparatuko zaie.

3. Datuak babesteko agintaritzek zerrenda batean jaso ahalko dituzte aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera inpaktu-ebaluazioa aplikatu behar zaien tratamenduak, eta, era berean, betebehari hori konplitu behar ez duten tratamenduen zerrenda bat ezarri ahalko dute. Bi zerrendak gutxi gorabeherakoak izango dira.

#### 36. artikulua. *Datuak babesteko agintaritzari alde aurreko kontsulta egitea.*

1. Tratamenduaren arduradunak edo eragileak, fitxategi berri baten parte izango diren datu pertsonalak tratatu aurretik, datuak babesteko agintaritzari kontsultatuko dio baldin eta inguruabar hauek tartean badira:

a) Datuen babesaren gaineko inpaktuaren ebaluazioak adierazten badu tratamenduak arrisku handia ekarriko lukeela, arduradunak arriskua bera edo sor litezkeen kalteak arintzeko neurriak hartu ezean.

b) Tratamendu motaren batek, batez ere teknologia, mekanismo edo prozedura berriak erabiltzen dituen batek, arrisku handia ekar badiezaieke interesdunen eskubideei eta askatasunei.

2. Datuak babesteko kasuan kasuko agintaritzak gutxi gorabeherako zerrenda bat egin ahal izango du aurretik kontsultatu beharreko tratamendu-eragiketekin, aurreko apartatuan xedatutakoarekin bat.

3. Tratamenduaren arduradunak 35. artikuluan aurreikusten den inpaktu-ebaluazioa aurkeztuko dio datuak babesteko agintaritza eskudunari; horrez gain, tratamendua behar bezala egin dela ebaluatzeko aukera, eta, zehatzago, interesdunaren datu pertsonalak babesteari eta dagozkion bermeak betetzei begira zer arrisku dagoen ebaluatzeko aukera emango dion beste edozein informazio ere eskuratuko dio, agintaritzak hala eskatzen badu.

4. Datu pertsonalak babesteko agintaritzak uste badu 1. apartatuan aurreikusitako tratamenduak lege organiko honetan xedatutakoa urratu dezakeela, sei asteko epea izango du, kontsulta egin denetik, tratamenduaren arduradunari, eta, hala badagokio, baita

tratamendu-eragileari ere, idatziz aholku emateko, bereziki tratamenduaren arduradunak arrisku-maila behar bezala identifikatu edo arindu ez badu. Era berean, ikerketa-, zuzenketa- edo kontsulta-ahalak egikaritu ahal izango ditu datuak babesteko agintaritzak.

Aurreikusitako tratamendua konplexua bada, epe hori hilabetez luza daiteke. Datuak babesteko agintaritzak luzapen horren berri jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari eta, halakorik badago, baita tratamendu-eragileari ere, hilabeteko epean kontsulta-eskabidea jasotzen denetik, eta luzapenaren arrazoiak azalduko dizkio.

Kontsultari ezarritako epean erantzuten ez bazaio, ez da aldeko presuntziorik aplikatuko.

## 2. atala. *Datu pertsonalen segurtasuna*

### 37. artikulua. *Tratamenduaren segurtasuna.*

1. Tratamenduaren arduradunak eta eragileak, teknikaren egoera eta hura aplikatzeak dakarren kostua kontuan izanda, tratamenduaren izaerari, norainokoari, testuinguruari eta helburuei erreparatuta eta datuak tratatzeak pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako zer arrisku dakarren aintzat hartuta, neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak aplikatuko dituzte, behar bezalako segurtasun-maila bermatzeko, batez ere 13. artikuluan aipatzen diren datu pertsonalen kategoriak tratatzean. Bereziki, Segurtasun Eskema Nazionalen jasotako neurriak aplikatu beharko dizkiete datu pertsonalen tratamenduei.

2. Tratamendu automatizatua dela-eta, tratamenduaren arduradunak edo eragileak arriskuen ebaluazioa egingo du, eta, horretan oinarrituta, zenbait kontrol-neurri jarriko ditu abian, helburu hauek izanik:

a) Ekipamenduetarako irispidea kontrolatzeari dagokionez, baimendutako pertsonen bakarrik ematea tratamendurako erabilitako ekipamenduetarako irispidea.

b) Datu-euskarriak kontrolatzeari dagokionez, baimendutako pertsonen bakarrik ematea datuok irakurtzeko, kopiatzeko, aldatzeko edo ezerezteko aukera.

c) Biltegitratzea kontrolatzeari dagokionez, baimendutako pertsonen bakarrik ematea datu pertsonalak sartzeko, ikuskatzeko, aldatzeko edo ezerezteko aukera.

d) Erabiltzaileak kontrolatzeari dagokionez, baimendutako pertsonen bakarrik ematea aukera tratamendu automatizatuko sistemak erabil ditzaten datuak transmititzeko instalazioen bidez.

e) Datuetarako irispidea kontrolatzeari dagokionez, bermatzea tratamendu automatizatuko sistema bat erabiltzeko baimena duten pertsonen baimenduta dituzten datu pertsonalak, ez besterik, izango dituztela irispidean.

f) Transmisioa kontrolatzeari dagokionez, bermatzea zer organismori transmititu zaizkien edo transmititu dakizkiekeen edo zer organismoren esku jar daitezkeen datu pertsonalak datuak lagatzeko ekipamenduen bidez.

g) Datuak sartzeari dagokionez, bermatzea gerora egiaztatu ahal izango dela zer datu pertsonal sartu diren tratamendu automatizatuko sistemetan, eta nork eta noiz sartuak diren.

h) Garraioa kontrolatzeari dagokionez, datu pertsonalak transferitzean edo datu-euskarriak garraiatzean, baimendutako pertsonen bakarrik ematea datu pertsonalak irakurtzeko, kopiatzeko, aldatzeko edo ezerezteko aukera.

i) Berrezarpena kontrolatzeari dagokionez, bermatzea instalatutako sistemak eteten badira, berrezarri egin daitezkeela.

j) Fidagarritasuna eta integritatea kontrolatzeari dagokionez, bermatzea sistemaren funtzioek ez dutela akatsik, funtzionamendu-erroreen berri ematen dela eta biltegitratutako datu pertsonalak ez direla hondatzen sistemaren funtzionamendu-akatsen ondorioz.



38. artikulua. *Datu pertsonalen segurtasuna urratu dela jakinaraztea datuak babesteko agintaritzari.*

1. Datu pertsonalen segurtasuna urratuz gero, horren berri emango zaio datuak babesteko agintaritzari eskudunari, salbu eta datu pertsonalen segurtasunean izan den urraketa nekez izan badaiteke arriskutsua pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako.

Segurtasuna urratu dela jakin eta gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean eman beharko da urraketaren berri. Osterantzean, atzerapenaren arrazoiak azaldu beharko dira.

2. Tratamendu-eragileak datu pertsonalen segurtasunean urraketaren bat izan dela jakiten badu, arduradunari jakinaraziko dio bidegabeko atzerapenik gabe.

3. 1. apartatuko jakinarazpenak baldintza hauek bete behar ditu, gutxienez:

a) Datu pertsonalen segurtasun-urraketa zer-nolakoa izan den jakinaraztea, eta, ahal bada, adieraztea segurtasun-urraketa zer pertsona-kategoriari eragin dien, zenbat pertsonari gutxi gorabehera, datu pertsonalen erregistroen zer kategoriari eta zenbat erregistrori gutxi gorabehera.

b) Datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak komunikatzea, edo informazio gehiago eman dezakeen beste harremangune batenak.

c) Datu pertsonalen segurtasuna urratzeak izan ditzakeen ondorioak zehatz-mehatz azaltzea.

d) Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa konpontzeko tratamenduaren arduradunak proposatu edo ezarri dituen neurriak deskribatzea; neurri horien barruan sartuko dira, hala badagokio, urraketaren ondorio negatiboak arintzeko neurriak.

4. Ezin bada informazio guztia aldi berean eman, progresiboki emango da, informazioa eskuratu ahala.

5. Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalen segurtasunaren urraketa oro dokumentatuko du, baita urraketarekin loturiko egitateak ere, eta, halaber, beraren ondorioak eta hartu diren neurri zuzentzaileak.

Dokumentu horiek datuak babesteko agintaritzari eskudunak kontsultatzeko moduan izango dira, artikuluko honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.

6. Datu pertsonalen segurtasunaren urraketak Europar Batasuneko beste estatu kide bateko tratamenduaren arduradunari transmititu dizkioten edo hark transmititu dituen datuei eragiten dienean, 3. apartatuan jasotako informazioa estatu horretako tratamenduaren arduradunari komunikatuko zaio.

7. Artikulu honetan aipatutako jarduera guztiak bidegabeko atzerapenik gabe egingo dira.

39. artikulua. *Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa interesdunari komunikatzea.*

1. Datu pertsonalen segurtasunaren urraketak pertsona fisikoen eskubideei eta askatasunei arrisku handia ekar diezaikeela pentsarazten duten zantzuak badaude, horren komunikazioa bidaliko dio interesdunari tratamenduaren arduradunak, bidegabeko atzerapenik gabe.

2. Interesdunari egindako komunikazioan, datu pertsonalen segurtasunaren urraketa deskribatuko da, hizkera argia eta erraza erabiliz; hizkera horrek, gainera, irisgarria izan beharko du interesdunarentzat, haren inguruabarrak eta gaitasunak aintzat hartuta. Deskribapenean, 38.3 artikuluko b), c) eta d) letretan aipatutako informazioa eta neurriak jasoko dira gutxienez.

3. Interesdunari ez zaio 1. apartatuan aipatzen den komunikazioa egingo baldintza hauetako bat betetzen bada:

a) Tratamenduaren arduradunak babes teknikoko eta antolaketa-babeseko neurri egokiak hartu ditu, eta neurri horiek segurtasun-urraketa jasan duten datu pertsonalei aplikatu zaizkie urraketaren aurretik, bereziki datu pertsonalak irispidean izateko baimenik ez duten pertsonak datuok ez ulertzeko neurriak, hala nola zifratua.

b) Tratamenduaren arduradunak neurriak hartu ditu, gerora, bermatzeko interesdunaren eskubide eta askatasunetarako 1. apartatuan aipatzen den arrisku handia ez dela gauzatuko.

c) Ahalegin neurrigabea eskatzen du; kasu horretan, komunikazioa dagokion aldezkarri ofizialean argitaratuko da, edo tratamenduaren arduradunaren egoitza elektronikoan edo interesdunarekin komunikatzeko aukera ematen duen beste komunikazio-kanal ofizial batean.

4. Tratamenduaren arduradunak ez badio interesdunari komunikatu datu pertsonalen segurtasuna urratu dela, datuak babesteko agintaritza eskudunak, arrisku handia dagoela baloratzen badu, arduradunari exijitu ahal izango dio interesdunari komunikazioa egin diezaiola, edo, bestela, 3. apartatuan aurreikusitako baldintzetako bat betetzen dela zehaztu dezala.

5. 1. apartatuan aipatutako komunikazioa geroratu, mugatu edo egin gabe utzi ahalko da, 24. artikuluan aipatzen diren arrazoiengatik, eta han adierazitako baldintzetan.

### 3. atala. *Datuak babesteko ordezkaria*

#### 40. artikulua. *Datuak babesteko ordezkaria izendatzea.*

1. Tratamenduaren arduradunek datuak babesteko ordezkari bat izendatuko dute beti. Jurisdikzio-organismoek edo Fiskaltzak ez dute ordezkari izendatu beharrik izango baldin eta beren egiteko jurisdikzionalak betetzen ari direla tratatzen badituzte datu pertsonalak.

2. Datuak babesteko ordezkaria izendatzeko, haren ezaugarri profesionalak hartuko dira kontuan. Zehazki, legeria-arloan dituen ezagutza espezializatuei eta datu-babesaren arloan duen esperientziari erreparatuko zaie, eta, halaber, 42. artikuluan aipatzen diren eginkizunak betetzeko gaitasuna duen aintzat hartuko da. Datuak babesteko Erregelamendu Orokorrekin bat etorriz datuak babesteko ordezkari bat izendatu bada, hark hartuko ditu bere gain lege organiko honen arabera datuak babesteko ordezkariari dagozkion eginkizunak.

3. Datuak babesteko ordezkari bakar bat izenda daiteke zenbait agintaritza eskudunetarako, agintaritzen antolaketa-egitura eta tamaina aintzat hartuta.

4. Tratamenduaren arduradunek datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko datuak argitaratuko dituzte, eta, ordezkaria izendatzean edo kargutik kentzean, horren berri emango diote datuak babesteko agintaritza eskudunari hamar eguneko epean, ordezkaria izendatu edo kargutik kendu zutenetik.

#### 41. artikulua. *Datuak babesteko ordezkariaren kokagunea.*

1. Tratamenduaren arduradunak zainduko du datuak babesteko ordezkariak datu pertsonalak babesteari lotutako gai guztietan behar bezala parte hartzen duela; bere ezagutza espezializatuei eusten diela; bere egitekoak betetzeko behar dituen bitartekoak dituela, eta datu pertsonalak eta tratamendu-eragiketak irispidean dituela.

2. Arduradunak edo eragileak ezin izango du datuak babesteko ordezkaria kargutik kendu edota zigortu, azken horrek bere zereginak betetzeagatik, salbu eta doloa edo zabarkeria larria izan bada. Datuak babesteko ordezkaria antolakundearen barruan independentea dela bermatuko da, eta interes-gatazkak saihestuko dira.

3. Datuak babesteko ordezkariak, bere egitekoak betetzen ari dela, irispidean izango ditu hala datu pertsonalak nola tratamendu-prozesuak. Tratamenduaren arduradunak edo eragileak ezin dute irispidearen aurka egin, konfidentzialtasuna edo sekretua gorde behar badute ere.

4. Datuak babesteko ordezkariak datu-babesaren arloko urraketa nabarmena dagoela ikusten badu, hura dokumentatuko du, eta berehala emango die horren berri tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen zuzendaritza-organoei.

42. artikulua. *Datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak.*

Tratamenduaren arduradunak, gutxienez, eginkizun hauek aginduko dizkio datuak babesteko ordezkariari:

- a) Informazioa eta aholkularitza ematea tratamenduaren arduradunari eta datuak tratatzen diharduten langileei, lege organiko honek eta aplikatzekoak diren datu-babesaren arloko beste xedapen batzuek esleitzen dizkieten betebeharrei buruz.
- b) Gainbegiratzea lege organiko honetan eta aplikatzekoak diren datu-babesaren arloko beste xedapen batzuetan jasotakoa betetzen dela, baita tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak babestearen arloan abiarazten dituen politiketan ezarritakoa ere, barnean direla dagozkion tratamendu-eragiketetan eta auditoretzetan parte hartzen duten langileei erantzukizunak esleitzea eta kontzientziarazioa eta prestakuntza eskaintzea.
- c) Datu-babesaren gaineko inpaktuaren ebaluazioaren inguruan eskatzen den aholkularitza eskaintzea, eta ebaluazioa gainbegiratzea.
- d) Datuak babesteko agintaritzarekin lankidetzan aritzea, indarrean dagoen legeria betez.
- e) Datuak babesteko agintaritzarekin harremanetan jartzeko gune gisa jardutea tratamenduari buruzko gaitan, haien barruan dela 36. artikuluan aipaturiko aurretiko kontsulta, eta kontsultak egitea, behar izanez gero, beste edozein gairi buruz.

## V. KAPITULUA

### **Europar Batasunetik kanpoko hirugarren herrialdeei edo nazioarteko antolakundeei datu pertsonalak transferitzea**

43. artikulua. *Datu pertsonalen transferentzien printzipio orokorrak.*

1. Pertsona fisikoen babes-maila lege organiko honetan aurreikusitakoa dela bermatzeko, Espainiako agintaritza eskudunek Europar Batasunetik kanpoko estatu bati edo nazioarteko antolakunde bati egindako datu pertsonalen transferentziek, baita gerora egiten diren mota horretako transferentziek ere, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Transferentzia beharrezkoa izatea 1. artikuluan xedatutako helburuak bete daitezen.
- b) 1. artikuluan aipatutako helburuetarako eskuduna den tratamenduaren arduradun bati transferitzea datu pertsonalak.
- c) Espainiako agintaritza eskudunari Europar Batasuneko beste estatu kide batek transferitu baldin badizkio datu pertsonalak, aldeztu aurretik beste estatu kide horrek datuok gerora transferitzeko baimena ematea, haren zuzenbide nazionalarekin bat.
- d) Europako Batzordeak egokitzapen-erabakia hartzea, 44. artikulua eraberrita, edo, horrelako erabakirik hartu ez bada, 45. artikuluan ezarritako berme egokiak izatea, edo, ez bada eta ez bestea betetzen ez badira, 46. artikuluan aipatzen diren egoera espezifikotarako salbuespenak aplikatzekoak izatea.
- e) Hasiera batean Espainiako agintaritza eskudun batek transferitutako datuak Europar Batasunetik kanpoko estatu bati edo nazioarteko antolakunde bati gerora transferitzeko, aipatutako agintaritzak eman beharko du baimena, dagozkion faktoreak aztertu ondoren, besteak beste zenbateraino den larria kasuan kasuko arau-hauste penala, zer helbururekin transferitu ziren datu pertsonalak eta zer babes-maila dagoen datu pertsonalak gerora transmitituko zaizkion estatuan edo nazioarteko antolakundean.

2. Espainiako agintaritzek beste estatu kide baten baimenik gabe transferitu ahalko dituzte datu pertsonalak —1c) paragrafoarekin bat—, salbu eta transferentzia hori beharrezkoa bada dela Europar Batasuneko edo Europar Batasunetik kanpoko estatu baten segurtasun publikoaren aurkako berehalako mehatxu larri bat prebenitzeko dela Europar Batasuneko estatu kide baten funtsezko interesak defendatzeko, betiere baimena garaiz lortzerik izan ez badute.

Espainiako agintaritzek transferentziaren berri emango diote baimena eman behar duen agintaritzari, atzerapenik gabe, transferentzia egin eta gehienez ere hamar eguneko epean.

3. Nazioarteko lankidetzarako eta elkarrekiko laguntzarako mekanismoak ezartzea bultzatuko da, eta Europar Batasunetik kanpoko estatuarekin eta nazioarteko antolakundeekin araudia eta jardunbide egokiak trukatzeari sustatuko da, datu pertsonalak babesteko legeria aplikatu dadila errazteko, baita jurisdikzio-gatazka konpontzeari dagokionez ere, eta ahaleginak egingo dira alderdi interesdun guztiek parte har dezaten.

#### 44. artikulua. *Egokitzapen-erabaki batean oinarritutako transferentziak.*

1. Europako Batzordeak, egokitze-erabaki baten bidez ebatzi badu ezen Europar Batasuneko kidea ez den estatu batek (edo estatu horretako lurralde batek edo sektore jakin batzuek) edo nazioarteko antolakunde batek behar bezalako babes-maila bermatzen dutela, datu pertsonalak transferitu ahalko zaizkio estatu edo nazioarteko antolakunde horri. Mota horretako transferentziak egiteko, ez da baimen espezifikorik behar.

2. Europako Batzordeak hartutako egokitzapen-erabaki batek ezartzen badu Europar Batasunetik kanpoko estatu batek (edo estatu horretako lurralde batek edo sektore jakin batzuek) edo nazioarteko antolakunde batek behar bezalako babes-maila bermatzeari utzi diola, hala dela joko da, hargatik eragotzi gabe estatu horri, estatuko lurralde edo sektore horri edo nazioarteko antolakunde horri datu pertsonalak transferitzea, 45. eta 46. artikuluekin bat.

#### 45. artikulua. *Berme egokiaren bidez egin beharreko transferentziak.*

1. Europako Batzordeak ez badu egokitzapen-erabakirik hartzen 44. artikulua arabera, Europar Batasunetik kanpoko estatu edo nazioarteko antolakundeei datu pertsonalak transferitu ahalko zaizkie baldin eta inguruabar hauetako bat tartean bada:

a) Datu pertsonalak babesteko berme egokiak eman badira juridikoki loteslea den tresna baten bidez.

b) Tratamenduaren arduradunak, datu pertsonalen transferentziaren zirkunstantzia guztiak ebaluatu ondoren, ondorioztatu badu datu pertsonalak babesteko berme egokiak daudela.

2. Tratamenduaren arduradunak, 1b) paragrafoarekin bat, transferentzia-kategorien berri emango dio datuak babesteko agintaritzari eskudunari.

3. 1b) paragrafoan xedatutakoan oinarritzen diren transferentziak dokumentatu egin behar dira. Dokumentazioa datuak babesteko agintaritzari eskudunak kontsultatzeko moduan jarriko da baldin eta agintaritzak hala eskatzen badu. Halaber, informazio hau jasoko da: transferentziaren data eta ordua, transferentziaren hartzailea den agintaritzari eskudunari buruzko informazioa, transferentziaren justifikazioa eta zer datu pertsonalak transferitu diren.

#### 46. artikulua. *Egoera espezifikoa eta salbuespenak.*

1. Europako Batzordeak egokitzapen-erabakirik hartzen ez badu (44. artikulua) edo berme egokirik ez badago (45. artikulua), Europar Batasunetik kanpoko estatu bati edo nazioarteko antolakunde bati datu pertsonalak transferitu ahal izango zaizkio bakar-bakarrik transferentzia beharrezkoa bada helburu hauetakoren bat betetzeko:

a) Interesdunaren edo beste pertsona baten bizi-interesak edo oinarritzeko eskubideak eta askatasunak babesteko.

b) Espainiako legeriak interesdunari aitortzen dizkion interes legitimoak zaintzeko.

c) Europar Batasuneko zein Europar Batasunetik kanpoko estatu bateko segurtasun publikoaren aurkako berehalako mehatxu larriak prebenitzeko.

d) Kasuan indibidualetan, 1. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

e) Kasu indibidualetan, 1. artikuluan ezarritako helburuei lotutako legezko akzioak egikaritzeko edo legezko akzio horien aurrean defendatzeko.

2. Ez da datu pertsonalik transferituko baldin eta transferentzia egiteko eskumena duen agintaritzak erabakitzen badu interesdunaren oinarritzko eskubideak eta askatasunak garrantzitsuagoak direla transferentzia egiteko interes publikoa baino —aurreko apartatuko d) eta e) letretan ezarritakoa—.

3. Artikulu honetan xedatutakoan oinarritutako transferentziak dokumentatu egin beharko dira. Dokumentazioa datuak babesteko agintaritza eskudunak kontsultatzeko moduan jarriko da. Halaber, informazio hau jasoko da: transferentziaren data eta ordua, transferentziaren hartzailea den agintaritza eskudunari buruzko informazioa, transferentziaren justifikazioa eta zer datu pertsonal transferitu diren.

47. artikulua. *Europar Batasunetik kanpoko estatuetan kokatuta dauden eta agintaritza eskudun ez diren hartzaileei datu pertsonalak zuzenean transferitzea.*

1. Salbuespenezko kasu berezi eta espezifikoetan, Espainiako agintaritza eskudunek zuzenean transferitu diezazkiekete datu pertsonalak Europar Batasunetik kanpoko estatuetan kokatuta dauden eta agintaritza eskudun ez diren hartzaileei, hargatik eragotzi gabe Espainiak nazioarteko hitzarmen bat edukitzea Europar Batasunetik kanpoko estatu batekin lankidetzat judizial penalaren edo lankidetzat polizialaren eremuan. Aipatutako salbuespenezko kasuetan datu pertsonalak zuzenean transferitzeko, lege organiko honen xedapenak bete beharko dira, bai eta baldintza hauek guztiak ere:

a) Transferentzia behar-beharrezkoa izatea Europar Batasuneko Zuzenbidearen edo Espainiako legeriaren arabera transferentzia egiten duen agintaritza eskudunak bere egiteko bat bete dezan 1. artikuluan aipatzen diren helburuetako bat lortzeko.

b) Transferentzia egiten duen agintaritza eskudunak erabakitzea interesdunaren oinarritzko eskubideak eta askatasunak ez direla garrantzitsuagoak kasuan kasuko transferentzia egin beharra dakarren interes publikoa baino.

c) Transferentzia egiten duen agintaritza eskudunak erabakitzea hartzailea kokatuta dagoen estatuko agintaritza eskudun bati transferentzia egitea —1. artikuluan aipatutako helburuetako bat bete dadin— ez litzatekeela eraginkorra izango, edo desegokia izango litzatekeela, batik bat transferentzia epearen barruan egiterik ez dagoela-eta.

d) 1. artikuluan aipatzen diren helburuak betetzeko eskumena duen estatu horretako agintaritzari jakinaraztea, bidegabeko atzerapenik gabe, salbu eta jakinarazteak eragina badu eta ez bada desegokia.

e) Transferentzia egiten duen agintaritza eskudunak hartzaileari jakinaraztea zer helburutarako trata ditzakeen agintaritzak datu pertsonalak, betiere tratamendua beharrezkoa izanez gero.

2. Transferentzia egiten duen agintaritza eskudunak datuak babesteko agintaritza eskudunari jakinaraziko dio zer transferentzia egin diren artikuluko honen arabera.

3. Artikulu honetan xedatutakoan oinarritutako transferentziak dokumentatu egin beharko dira.

## VI. KAPITULUA

### Datuak babesteko agintaritza independenteak

48. artikulua. *Datuak babesteko agintaritzak.*

Lege organiko honen ondorioetarako, hauek dira datuak babesteko agintaritza independenteak:

a) Datuak Babesteko Espainiako Agentzia.

b) Datuak babesteko agintaritza autonomikoak, beren eskumenen eremuan ardurapean dituzten tratamenduei dagokienez soilik, abenduaren 5eko 3/2018 Lege

Organikoaren 57.1 artikuluan eta aplikatzekoa den araudi autonomikoan xedatutakoarekin bat etorritz.

Agintaritza horiek lege organiko hau bete behar dute haren mende dauden tratamenduei dagokienez, eta, horretarako, erakundeen arteko lankidetzaren, irizpide-koordinazioaren eta elkarrekiko informazioaren printzipioei jarraituko diete. Bestetik, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren VII. tituluan eta lege hori sortzeko eta garatzeko arauetan ezarritakoa bete behar dute.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak datuak babesteko agintaritzen ordezkari jardungo du Datuak Babesteko Europako Lantaldean.

#### 49. artikulua. *Eginkizunak.*

1. Datuak babesteko agintaritza eskudunek eginkizun hauek beteko dituzte lege organiko honen mendeko tratamenduei dagokienez:

a) Lege organiko honen arabera onartutako xedapenak gainbegiratzea eta betearaztea.

b) Herritarrei tratamenduari lotutako arriskuak, arauak, bermeak eta eskubideak ulertaraztea eta horien inguruko sentsibilizazioa sustatzea.

c) Pertsona fisikoek tratamenduari dagokionez dituzten eskubideak eta askatasunak babesteko legegintza- eta administrazio-neurrien inguruan aholku ematea Gorte Nagusiei, Nazioko Gobernuari eta Estatuaren Administrazio Orokorraren mendeko edo hari lotutako organismoiei, bai eta autonomia-erkidegoetako batzar legegileei, gobernu-kontseiluei eta autonomia-erkidegoetako administrazioaren mendeko edo hari lotutako organismoiei ere, zeini bere eskumen-eremuaren arabera.

d) Tratamenduaren arduradunak eta eragileak beren betebeharren inguruan sentsibilizatzea sustatzea.

e) Interesdunek lege organiko honen arabera dituzten eskubideak egikaritzeari buruz informaziorik eskatzen badute, informazio hori ematea, eta, hala badagokio, datuak babesteko Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako agintaritzekin lankidetzan aritzea, helburu hori bera betetzeko.

f) Interesdunek, entitateek, antolakundeek edo elkarteek 55. artikuluari jarraituz aurkezten dituzten erreklamazioak izapidetzea, eta horiei erantzutea; behar den neurrian erreklamazioaren arrazoa ikertzea, eta erreklamatzailera arrazoizko epe batean jakitun ipintzea ikerketaren bilakabideaz eta emaitzaz.

g) Tratamendua zilegia ote den kontrolatzea, 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta kontrol horren emaitzaren berri ematea interesdunari, arrazoizko epe batean, edo bestela, tratamendua zilegia ote den kontrolatzen ez bada, horretarako arrazoiak jakinaraztea.

h) Datuak babesteko beste agintaritza batzuekin lankidetzan aritzea, informazioa partekatuz bereziki, eta elkarri laguntzea.

i) Lege organiko honen aplikazioari buruzko ikerlanak egitea, batik bat datuak babesteko beste agintaritza batek edo beste agintaritza publiko batek emandako informazioan oinarrituta.

j) Gertakari interesgarrien jarraipena egitea, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenarekin lotutako gertakariena, datu pertsonalen babesean eragiten baitute.

k) 36. artikuluan azaldutako tratamendu-eragiketen gainean aholku ematea.

l) Datuak Babesteko Europako Lantaldearen jardueretan laguntzea.

m) Lege organiko honen mendeko tratamenduei eragiten dieten legezko edo erregelamenduzko xedapen guztiei buruzko txostenak egitea.

2. Datuak babesteko agintaritzek zenbait neurri hartuko dituzte 1f) paragrafoan aipatutako erreklamazioak aurkezten laguntzeko; esate baterako, elektronikoki bete daitezkeen formularioak emango dituzte, beste bitarteko batzuk alde batera utzi gabe.

3. Kontrol-agintaritzen eginkizunak betetzeak ez dio inolako kosturik ekarriko interesdunari, ezta datuak babesteko ordezkariari ere.

4. Eskabideak argi eta garbi funsgabeak edo neurrigabeak direnean, errepikakorrak direlako bereziki, datuak babesteko agintaritzak aukera izango du eskabidea bideratzeari uko egiteko. Datuak babesteko agintaritzak bere gain hartuko du eskabidea argi eta garbi funsgabea edo neurrigabea dela frogatzeko karga.

50. artikulua. *Ahalak.*

Datuak babesteko agintaritzek ahal hauek izango dituzte, lege organiko honen eremuan:

a) Ikertzea, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera. Ahal honen barruan sartuko da tratamenduaren arduraduna edo eragilea tratatzen ari den datu guztiak irispidean izatea.

b) Lege organiko honetan ezarritakoaren gainean ohartaraztea, eta legea betetzen dela kontrolatzea. Ahal honen barruan sartzen da arau-haustea zehatzea; gomendioak egitea; datu pertsonalak zuzentzeko, ezerezteko edo haien tratamendua mugatzeko agintzea; tratamendua aldi baterako edo behin betiko mugatzeko agintzea (tratamendua debekatzea barne); eta, datuen segurtasuna urratuz gero, interesdunei urraketaren berri emateko agintzea tratamenduaren arduraduneri.

c) Aholku ematea. Ahal honen barruan sartzen da aurretiko kontsultak egitea, 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, halaber, agintaritzaren ekimenez edo eskaera bati erantzunez, lege organiko honen mendean dagoen datu pertsonalak babestearen arloko edozein gairi buruzko irizpenak ematea, Gorte Nagusiei edo Gobernuari zuzenduta, edo beste erakunde edo organismo batzuei, edo herritar guztiei, oro har.

51. artikulua. *Europar Batasuneko estatu kideetako datuak babesteko agintaritzek elkarri laguntzea.*

1. Datuak babesteko Espainiako agintaritzek behar den laguntza eta lankidetzak eskainiko diete datuak babesteko Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako agintaritzei. Horretarako, bidegabeko atzerapenik gabe erantzun behar diete agintaritzen eskaerei, eskaera jaso eta hilaibeteko epean gehienez ere. Elkarrekiko laguntzak bereziki hartuko ditu barnean informazio-eskaerak eta kontrol-neurriak, bai eta kontsultatzeko, ikuskatzeko eta ikertzeko eskaerak ere.

2. Datuak babesteko Espainiako agintaritzek, beren egitekoak betetzen ari direla, laguntza eta lankidetzak emateko eska diezaiekete datuak babesteko Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako agintaritzei.

Eskabideetan, erantzun ahal izateko behar den informazio guztia jaso beharko da; besteak beste, eskaera egiteko arrazoiak eta eskaeraren helburua adieraziko dira. Elkarri emandako informazioa eskaeraren helburua betetzeko erabiliko da, ez beste ezertarako.

3. Datuak babesteko Espainiako agintaritzen erantzunetan, jaso den eskaeran oinarrituta lortu diren emaitzen edo hartu diren neurrien berri eman beharko da. Ahal bada, formatu elektronikoa bidaliko dira erantzun horiek.

4. Datuak babesteko Europar Batasuneko estatu kide bateko agintaritzak batek egiten duen laguntza-eskaera bati erantzuteari uko egin ahalko zaio, bakar-bakarrik, datuak babesteko Espainiako agintaritzak ez bada eskuduna eskatutako neurriari edo eskaeraren xedeari dagokionez, edo eskaerari erantzuteak Espainiako legeria edo Europar Batasuneko Zuzenbidea urratzen badu. Horrelakoetan, uko egiteko arrazoiak azaldu beharko dira. Interesdunaren eskubideak 24. artikuluekin bat etorritik murrizten badira, horren berri emango da.

5. Elkarri laguntzeko eskaera baten ondorioz hartutako neurriak doakoak izango dira; hala ere, salbuespenezko egoeretan, laguntza emateak eragindako gastu espezifikoen kalte-ordaina ematea adostu daiteke.

## VII. KAPITULUA

### Erreklamazioak

52. artikulua. *Datuak babesteko agintaritzen aurrean izapidetutako prozedurei aplikatu beharreko araubidea.*

1. Interesdunek ikusten badute datu pertsonalak tratatzean lege organiko honen xedapenak urratu direla edo ez zaiola erantzun 21., 22. eta 23. artikuluetan aitortzen zaizkien eskubideak egikaritzeko egin duten eskaerari, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote datuak babesteko agintaritzari.

2. Mota horretako erreklamazioak datuak babesteko agintaritza eskudunak izapidetuko ditu, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren VIII. tituluaren ezarritako prozedurari jarraituz, eta, hala badagokio, aplikatzekoa den autonomia-erkidegoetako legeria betez. Administrazio-prozedurei eta sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko arau orokorrek osatuko dute, modu subsidiarioan, aipatutako legeria.

3. Organo judizial batek edo Fiskaltzak egindako jarduketa batean, tratamenduak helburu jurisdikzionala badu, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren III. liburuaren V. tituluaren xedatutakoaren arabera zehaztuko da erantzukizuna.

4. 55. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, horri buruzko araudiarekin bat, non eta datuak babesteko agintaritza eskudunak ebazpen espresua ematen ez duen eta interesdunari hiru hilabeteko epean jakinarazten ez dion.

53. artikulua. *Sektore publikoko enteek emandako kalte-ordaina jasotzeko eskubidea.*

1. Lege organiko honetan xedatutakoa urratzearen ondorioz beren ondasunei edo eskubideei kaltea eragiten bazaie, interesdunek eskubidea izango dute tratamenduaren arduradunak edo eragileak emandako kalte-ordaina jasotzeko, arduradun edo eragile horrek sektore publikoan jarduten badu.

2. Lege organiko honetan xedatutakoa urratzen duena administrazio publikoa bada, erantzukizuna exijitzean, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari eta sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko araudian aurreikusten den ondare-erantzukizunaren araubideari buruzko legeria beteko da.

3. Organo judizial batek edo Fiskaltzak egindako jarduketa batean, tratamenduak helburu jurisdikzionala badu, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren III. liburuaren V. tituluaren xedatutakoaren arabera zehaztuko da erantzukizuna.

54. artikulua. *Sektore pribatuko tratamendu-eragileek emandako kalte-ordaina jasotzeko eskubidea.*

1. Lege organiko honetan xedatutakoa urratzearen ondorioz sektore publikokoa ez den tratamendu-eragile batek interesdun baten ondasunei edo eskubideei kaltea eragiten badie, interesdunak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du.

2. Dela kontratuan dela 30. artikuluaaren arabera tratamenduaren arduradunarekin sinatutako beste tresna edo egintza juridiko batean aurreikusten diren datu-tratamenduko eragiketen ondoriozko kalte-galera guztiak ordaindu beharko dizkie tratamendu-eragileak interesdunei edo hirugarrenei. Horretarako, hirugarrenei eragindako kalteengatik kontratistak duen erantzukizunari buruzko araubideari jarraituko dio —sektore publikoko kontratuei buruzko araudiak erregulatzen du araubide hori—.

3. Baldin eta kalte-galera horiek tratamenduaren arduradun den agintaritza eskudunak emandako agindu baten berehalako ondorio zuzena badira, aipatutako agintaritza izango da erantzule.

4. Kaltea jasan duten interesdunek edo hirugarrenek errekerimendua egin ahal izango diote tratamenduaren arduradunari, egitea gertatu eta hurrengo urtearen barruan, tratamendu-eragileari entzun ondoren jakinaraz dezan alderdi kontratugileetatik edo 30.



artikuluaren arabera egintza juridikoa sinatu duten alderdietatik zein den kalteen erantzule. Ahalmen horretaz baliatzeak eten egiten du akzioa preskribatzeko epea.

5. Aurreko apartatuetan aurreikusitakoa gorabehera, tratamendu-eragilea sektore publikokoa ez bada, datu-tratamenduko eragiketak egin bitartean sortzen dituen kalte-galeren erantzule izango da. Era berean, tratamenduaren arduradunak, interesdunak edo hirugarrenek lege organiko hau urratzen badute, edo legezko edo erregelamenduzko manuak hausten badituzte, edo kontratuan edo sinatu den bestelako egintza juridikoan jasotakoa betetzen ez badute, tratamendu-eragileak horien izenean erantzun beharko du. Tratamendu-eragilea sektore publikokoa ez bada, berari egotz dakizkiokeen jarduketak egin baditu bakarrik izango da erantzule, hargatik eragotzi gabe zehapen-araubidea aplikatzea, hala badagokio.

55. artikulua. *Babes judizial eragingarria.*

1. Pertsona fisiko edo juridiko orok datuak babesteko agintaritza eskudunak emandako egintzen eta ebazpenen aurkako errekurtsioa jarri ahalko du administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, mota horretako errekurtsioak arautzen dituen legeriari jarraituz, hargatik eragotzi gabe bestelako administrazio-errekurtsioak edo erreklamazioak aurkeztea.

2. Interesdunak irabazi-asmorik gabeko entitate, antolakunde edo elkarte baten esku utz dezake bere ordezkari, aurreko apartatuan aipatzen diren eskubideak egikaritu ditzan, baldin eta entitate hori behar bezala eraturik badago, haren estatutuetan azaltzen diren helburuak interes publikokoak badira eta datu pertsonalak babestearen arloan interesdunen eskubideak eta askatasunak babesteko jarduten badu.

## VIII. KAPITULUA

### Zehapen-araubidea

56. artikulua. *Subjektu erantzuleak.*

1. Zuzenean arau-hausteen erantzule izango dira egiteen zein ez-egiteen ondorioz araua haustea ekarri duen jokabidea izan duten betebeharreko subjektuak.

2. Honako hauek daude zehapen-araubidearen mende:

- a) Tratamenduen arduradunak.
- b) Tratamendu-eragileak.
- c) Europar Batasunean kokatuta ez dauden tratamendu-eragileen ordezkariak.
- d) 7. artikuluan ezarritako lankidetzeta-betebeharra konplitu behar duten gainerako pertsona fisikoak eta juridikoak.

3. Datuak babesteko ordezkariari ez zaio aplikatuko kapitulu honetan ezarritako zehapen-araubidea.

57. artikulua. *Arau-pilaketa.*

1. Lege honen edo beste lege baten bi manuren edo gehiagoren arabera kalifika daitezkeen egitateak zehatzean, arau hauek beteko dira, non eta ez dituzten hausten Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra edo abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa:

- a) Manuak aplikatzean, manu bereziek lehentasuna izango dute manu orokorren aldean.
- b) Manu zabalenak edo konplexuenak baitaratuko ditu bere barruan subsumitutako arau-haustea zehatzen dituen manua.
- c) Aurreko irizpiderik ezean, egitateari zehapen handiena ezartzen dion manua aplikatuko da.

2. Egitate bakar batek arau-hauste bat edo gehiago eragiten badu, edo arau-hausteetako bat bestea egiteko beharrezko bitartekoa bada, zehapen handiena dakarren arau-haustea aintzat hartuta zehatuko da jokaera hori.

58. artikulua. *Arau-hauste oso astunak.*

Arau-hauste oso astunak dira:

a) 6. artikuluan ezarritako printzipioak eta bermeak urratzen dituzten edo 11. artikuluan tratamenduaren zilegitasunari buruz ezarritako baldintzetako bat ere betetzen ez duten datu pertsonalak tratatzea, betiere horrek kalte oso larriak eragiten badizkie interesdunei.

b) Datuak irispidean izatea, lagatzea, aldatzea edo zabaltzea, datuen arduradunak edo eragileak baimendutako kasuetan izan ezik, betiere horrek egintza ez-zilegi penalik ez badakar.

c) Datu pertsonalak aldi baterako edo behin betiko transferitzea, bai Europar Batasunetik kanpoko estatuari, bai agintaritzaren eskudun ez diren eta 43. eta 47. artikuluetan aipatutako baldintzak urratuz aipatutako estatuaren kokatuta dauden hartzaileei.

d) Datuak bildu ziren xedearekin bateragarria ez den beste helburu baterako erabiltzea, edo 6. artikuluan ezarritako baldintzak urratzea, non eta ez dagoen horrela jokatzea justifikatzen duen legezko oinarririk.

e) Kategoría berezietako datu pertsonalak tratatzea, 13. artikuluan ezartzen diren inguruabarretako bat ere betetzen ez dela edo segurtasun-neurri egokiak bermatu gabe, baldin eta datu horiek tratatzeak kalte larriak eragiten badizkie interesdunei.

f) Interesdunari bere datu pertsonalak tratatu direla ez jakinaraztea, lege organiko honetan xedatutakoa urratuz.

g) Tratamendu-eragileak 30. artikuluan ezartzen den konfidentzialtasuna gordetzeko eginbeharra ez betetzea.

h) Erabaki indibidual automatizatuak hartzea 14. artikuluan aipatzen diren bermeak bete gabe, betiere horrek kalte oso larriak eragiten badizkie interesdunei.

i) Interesdunak datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko edo tratamendua mugatzeko dituen eskubideak egikaritu ditzan eragozteko edo oztopatzea, edo eskubide horiei behin eta berriro jaramonik ez egitea, betiere horrek kalte oso larriak eragiten badizkie interesdunei.

j) 7. artikuluan ezarritakoari jarraituz arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko, zehapen penalak betearazteko edo segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzeko eta mehatxuotatik babesteko behar den informazioa ez ematea, eta interesdunari bere datuak laga direla ez jakinaraztea, aipatu dugun artikuluan ezartzen den lankidetzaren eginbeharra urratuz.

k) Datuak babesteko agintaritzaren eskudunen ikuskatze-lanaren aurka egitea edo hari oztopoak ipintzea.

l) Datu pertsonalak babesteko agintaritzaren eskudunei datu pertsonalen segurtasuna urratu dela ez jakinaraztea, horren berri eman behar zaienean, edo interesdunari segurtasun-urraketa bat ez jakinaraztea, 39. artikuluan arabera horren berri ematea dagokionean, betiere horrek kalte oso larriak eragiten badizkie interesdunari.

m) Datuak babesteko agintaritzaren eskudunek 50. artikuluan esleitzen dizkien ahalak erabiliz ematen dituzten ebazpenak ez betetzea.

n) Datuak babesteko agintaritzaren eskudunek beren ikerketa-ahalak egikaritzen ari direla eskatzen dituzten datu pertsonalak, informazioa, lokalak, ekipoak eta tratamendu-bitartekoak irispidean izan ditzaten eragozteko agintaritzaren eskudunetako langileei.

ñ) 8. artikuluan ezarritako kontserbazio- eta berrikuspen-epeak ez betetzea.

59. artikulua. *Arau-hauste astunak.*

Arau-hauste astunak dira:

a) Datu pertsonalak tratatzean, 6. artikuluan jasotako printzipioak edo 11. artikuluan aipatzen diren tratamendua zilegia izateko baldintzak urratzea, betiere horrek arau-hauste oso astuna ez badakar.

b) Kategoría berezietako datu pertsonalak tratatzea, 13. artikuluan ezartzen diren inguruabarretako bat ere bete gabe edo segurtasun-neurri egokiak bermatu gabe, betiere horrek arau-hauste oso astuna ez badakar.

c) Erabaki indibidual automatizatuak hartzea, 14. artikuluan adierazitako bermerik gabe, betiere horrek arau-hauste oso astuna ez badakar.

d) Ez izendatzea datuak babesteko ordezkaririk 40. artikuluan aurreikusitako moduan, edo ordezkaririk horri datu pertsonalei buruzko gai guztietan parte hartzeko aukerarik ez ematea, edo babesik ez ematea, edo bere eginkizunak bete ditzan oztopatzea.

e) Ez jartzea interesdunaren esku 21. artikuluan aurreikusitako informazioa, edo interesdunari edo datuak babesteko agintaritzaren eskudunari datuen segurtasuna urratu dela ez jakinaraztea, baldin eta urraketa horrek kalte larria eragiten badie interesdunaren eskubideei eta askatasunei.

f) Ez hartzea neurri tekniko edo antolaketa-neurri egokirik datuak babesteko printzipioak eraginkortasunez aplikatzeko —diseinutik abiatuta eta lehenetsita hartzen diren neurriak barne—, ezta tratamenduan behar diren bermeak txertatzeko ere.

g) Interesdunak datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko edo tratamendua mugatzeko dituen eskubideak egikaritu ditzan eragozteko edo oztopatzea, edo haren eskubideei behin eta berriro jaramonik ez egitea, betiere horrek arau-hauste oso astuna ez badakar.

h) Tratamendu-jardueren erregistroak edo tratamendu-eragiketen erregistroa eramateko betebeharrak ez konplitzea, baldin eta horrek kalte larriak eragiten badizkie interesdunari.

i) Tratamenduaren arduraduna eta eragilea lotzen dituen kontratuko edo egintza juridikoko xedapenak ez betetzea, non eta ez diren xedapenak urratu behar datuak babesteari buruzko legeria bete dadin —horrelakoetan, tratamenduaren arduradunari eta eragileari ohartarazi behar zaie—, edo, bestela, 30. artikuluan ezarritako betebeharrak ez konplitzea.

j) 7. artikuluan ezarritako betebeharrak konplitzeko eskumena duten agintaritzekin lankidetzan ez aritzea, betiere horrek arau-hauste oso astuna ez badakar.

k) Elkarlanean ez aritzea, zabarkeriaz jardutea edo datuak babesteko agintaritzaren eskudunen ikuskatze-eginkizuna eragozteko, betiere horrek arau-hauste oso astuna ez badakar.

l) Datu pertsonalen babesaren gaineko inpaktuaren ebaluaziorik ez egitea, baldin eta horrek kalte edo arrisku larriak eragiten badizkie interesdunari.

m) Datu pertsonalak tratatzea alde aurretik datu pertsonalak babesteko agintaritzaren eskudun bati kontsultatu gabe, 36. artikuluan arabera kontsultatzea nahitaezkoa den kasuetan.

60. artikulua. *Arau-hauste arinak.*

Arau-hauste arinak dira:

a) Interesdunaren eskubideei kalte arina eragitea, behar bezalako arduraz ez jokatzeari, edo behar adinako edo behar bezalako neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak ez hartzei.

b) Informazioa ematean, gardentasun-printzipioa edo interesdunaren informazioa jasotzeko eskubidea —21. artikuluan ezarritakoa— urratzea; lege organiko honek exijitzen duen informazio guztia ematen ez denean gertatzen da hori.

c) Interesdunari, hau da, zuzendu diren, ezereztu diren edo tratamendua mugatu zaien datu pertsonalak eman dituen pertsonari, eta hartzaileei, hau da, datu horiek jakinarazi zaizkien pertsonari, 23. artikuluan ezartzen den informazioa ez ematea.

d) Tratamendu-jardueren erregistrorik edo eragiketen-erregistrorik ez eramatea, edo erregistro horietan legez jaso beharreko informazio guztia ez jasotzea, betiere horrek arau-hauste astuna ez badakar.

e) Hilda dauden pertsonari buruzko datuak ezerezteko betebeharra ez konpliztea, legez ezereztu beharrekoak badira.

f) Tratamenduaren erantzunkideek ez formalizatzea datu pertsonalen tratamenduaren ondorioz eta interesdunetik harremanen ondorioz dituzten betebeharrak, eginkizunak eta erantzukizunak zehazteko akordiorik, edo, bestela, betebeharrak, eginkizunak eta erantzukizun horiek ez mugatzea edo horiek zehaztean okerrak egitea.

g) Tratamendu-eragileak ez jakinaraztea tratamenduaren arduradunari ezen arduradunaren beraren jarraibideak betetzearen ondorioz lege organiko honen xedapenak urratu direla.

h) Datu pertsonalak babesteko agintaritzaren eskudunari informazio okerra edo osatugabea ematea datuen segurtasun-urraketa bati buruz, informazio hori ez dokumentatzea edo interesdunari haren berri ez ematea, betiere horrek arau-hauste astuna ez badakar.

i) Tratamenduaren arduradunak datuak babesteko agintaritzaren eskudunari alde aurreko kontsulta egin behar dion kasuetan, agintaritzaren horri informazio okerra edo osatugabea ematea.

j) Datuak babesteko ordezkararen harremanetarako datuak ez argitaratzea, edo, lege organiko honen arabera datuak babesteko ordezkaria izendatzea nahitaezkoa denean, ez jakinaraztea datuak babesteko agintaritzaren eskudunari ordezkaria izendatu edo kargutik kendu izana, horrek 40. artikulua urratzea baitakar.

## 61. artikulua. *Araubide juridikoa.*

Datuak babesteko agintaritzaren eskudunari dagokie zehatzeko ahala egikaritzea, eta, horretarako, kapitulu honetan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren VII. eta IX. tituluetan xedatutakoari jarraituko zaio; modu subsidiarioan, horien osagarri izango da, aipatutako xedapenen kontra ez doan guztian, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzko eta sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko araudia.

## 62. artikulua. *Zehapenak.*

Lege organiko honetan tipifikatutako arau-hausteak egiteagatik, zehapen hauek ezarriko dira:

1. Erantzulea abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 77.1 artikuluan aipatutakoetako bat bada, artikuluko horretan jasotzen diren zehapenak eta neurriak ezarriko dira.

2. Arau-haustea abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 77.1 artikuluan aipatutakoez bestelakoa bada, zehapen hauek ezarri ahal izango zaizkio:

- a) Arau-hauste oso astunengatik, 360.001 eta 1.000.000 euro bitarteko isuna.
- b) Arau-hauste astunengatik, 60.001 eta 360.000 euro bitarteko isuna.
- c) Arau-hauste arinengatik, 6.000 eta 60.000 euro bitarteko isuna.

Zehapenaren diru-zenbatekoa erabakitzeak, Datuak babesteko Erregelamendu Orokorren 83.2 artikuluan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 76.2 artikuluan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

63. artikulua. *Arau-haustee eta zehapenek preskribatzea.*

1. Lege organiko honetan tipifikatutako arau-hauste administratiboek —arinak, astunak edo oso astunak izan— araua hautsi eta sei hilabetera, bi urtera edo hiru urtera preskribatuko dute, hurrenez hurren.

Lege organiko honetan adierazitako epeak araua hautsi den egunetik aurrera zenbatuko dira. Nolanahi ere, arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, jokaera arau-hauslea amaitu zen unetik aurrera zenbatuko dira epeak.

Arau-haustearen preskripzioa eten egingo da, interesduna jakitun dela, zehapen-prozedura hasten denean. Preskripzio-epea berriro neurtzen hasiko da, zehapen-prozedura sei hilabetetik gora geldo badago ustezko arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoi baten ondorioz.

Halaber, preskripzioa eten egingo da prozedura penal judiziala hasiz gero, harik eta agintaritza judizialak administrazio-organoari prozedura amaitu dela jakinarazten dion arte.

2. Arau-hauste oso astunak direla-eta ezarritako zehapenek hiru urteko epean preskribatuko dute; arau-hauste astunak direla-eta ezarritakoek, bi urteko epean; eta arau-hauste arinak direla-eta ezarritakoek, urtebetera. Zehapena ezartzen duen ebazpena administrazio-bidean irmo bihurtu eta biharamunean hasiko da zenbatzen preskripzio-epea.

Arau-haustearen preskripzioa eten egingo da, interesduna jakitun dela, betearazpen-prozedura hasten denean. Preskripzio-epea berriro neurtzen hasiko da baldin eta betearazpen-prozedura sei hilabetetik gora geldo badago arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoi baten ondorioz.

64. artikulua. *Prozedura iraungitzea.*

1. Ebazpenik jakinarazi ezean, hasi eta sei hilabetera iraungiko da prozedura; halere, epe hori zenbatzean, interesdunari egozteko moduko eteteak hartuko dira kontuan, baita prozedura judizial penala dagoelako (eta hura amaitzen den arte) erabaki beharreko etetea ere, betiere horrelakoetan subjektua, egitatea eta arau-haustearen funtsa berberak badira.

2. Iraungitze-ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, eta ebazpen horrek emango dio amaiera prozedurari, hargatik eragotzi gabe administrazioak, arau-haustea preskribatu arte, beste prozedura bat hastea erabakitzea. Prozedura iraungitzeak ez du preskripzio-epearen zenbaketa geldituko.

65. artikulua. *Zehapen-prozedura administratiboa, prozedura penalaren osagarri modu subsidiarioan.*

1. Administrazio-arloan edo arlo penalean zehapena jaso duten egitateei ezingo zaie zehapenik berriro ezarri baldin eta subjektua, egitatea eta arau-haustearen funtsa berberak badira.

2. Jokabideak delitua izan daitezkeen kasuetan, administrazio-organoak agintaritza judizialari edo Fiskaltzari helaraziko dio erruduntasun-testigantza; hori dela eta, ez du zehapen-prozedurarekin jarraitu beharrik izango, harik eta agintari judizialak epai irmoa edo beste modu batera prozedurari amaiera ematen dion ebazpena eman arte, edo Fiskaltzak jarduketak abiaraztea edo horiekin bide penalean jarraitzea ez dela egokia ebazten duen arte, eta ordura arte etenda geldituko da preskripzio-epea.

Agintaritza judizialak eta Fiskaltzak administrazio-organoari jakinaraziko diote emandako ebazpena edo hartutako erabakia.

3. Ez baldin bada baiesten egintza ez-zilegi penala dagoela, edo prozedura penalari amaiera ematen dion bestelako ebazpen bat ematen bada, zehapen-prozedura hasi ahalko da, edo prozeduran aurrera egin. Nolanahi ere, bide judizialean frogatutzat jotako egitateei lotetsita geldituko da administrazio-organoa.

4. Agintaritza judizialak bestelakorik ebazten ez badu, esku-hartze judizialaren aurretik hartutako kautela-neurriei eutsi ahalko zaie.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Araubide espezifikoak.*

1. Segurtasun Indar eta Kidegoek, espetxeetako zaintza eta kontrolerako organo eskudunek edo zirkulazioaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplinarako organo eskudunek, kamerak eta bideokamerak erabiliz, eskuratu dituzten irudi eta soinetatik datozen datu pertsonalak tratatzean —1. artikuluan aipatzen diren helburuak betetzeko—, lege organiko honen xedapenak beteko dira; nolahi ere, baliteke beste eremu zehatz batzuk (hala nola prozesu penalen eremua, zirkulazioaren erregulazioa edo instalazio propioen babesa) arautzen dituzten lege-araubide bereziek beste betekizun batzuk ezartzea.

2. Aipatutako kasuetatik aparte, tratamendu horiek haien legeria espezifikoaren arabera arautuko dira, eta, modu osagarrian, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

Bigarren xedapen gehigarria. *Europar Batasunaren barruan datuak trukitzea.*

Espainiako agintaritzak eskudunek Europar Batasunaren barruan datu pertsonalak trukatu behar badituzte, Europar Batasuneko Zuzenbideak edo Espainiako legeriak hala eskatzen dutelako datu-truke hori, ez da egongo ez mugatuta ezta debekatuta ere pertsona fisikoak beren datu pertsonalen tratamenduari dagokionez babestearekin zerikusia duten arrazoiengatik.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Lankidetza judizial penalaren eta lankidetza polizialaren arloko nazioarteko akordioak.*

Lankidetza judizial penalaren eta lankidetza polizialaren arloko nazioarteko akordioek, baldin eta datu pertsonalak Europar Batasunetik kanpoko estatuei edo nazioarteko antolakundeei transferitzea badakarte eta Espainiak 2016ko maiatzaren 6a baino lehen sinatu baditu, ordura arte aplikatzekoa zen Europar Batasuneko Zuzenbidean xedatutakoa betez, indarrean jarraituko dute, harik eta aldatzen, zuzentzen edo amaitzen diren arte.

Laugarren xedapen gehigarria. *Administrazio publikoen biztanleen fitxategiak eta biztanleria-erregistroa.*

1. Agintaritzak eskudunek, interesdunaren adostasunik gabe, beren eskumenak egikaritzen dituzten lurraldeetako biztanleen udal-erroldean eta hauteskunde-erroldean jasotako datuekin (izen-abizenak, bizilekua, sexua eta jaiotza-data) osatutako fitxategiaren kopia eguneratua eska diezaiekete Estatistikako Institutu Nazionalari eta autonomia-erkidegoetako estatistika-organoei. Eskabide hori arazoitu egin beharko da, oinarritzat hartuta arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko edo zehapen penalak betearazteko helburuak, barnean direla segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzea eta mehatxuotatik babestea.

2. Eskuratutako datuen helburu bakarrak izango dira arau-hauste penalak prebenitzea, detektatzea, ikertzea eta epaitzea eta zehapen penalak betearaztea; segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzea eta mehatxuotatik babestea, eta agintaritzak bakoitza bere lurraldean bizi diren interesdunekin harremanetan jartzea, zeinek bere eskumenean ondorioz dituen harreman juridiko-administratiboak buruz aritzeko.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Arau-aipamenak.*

Espresuki indargabetzen diren xedapenei buruz indarrean dauden arauetan egiten diren aipamenak lege organiko honetan arlo hori bera arautzen duten artikuluei egindako aipamentzat hartu behar dira.

Xedapen iragankor bakarra. *Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren mendeko Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritzaren titularraren lehen agintaldiaren iraupena.*

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren mendeko Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritzaren titular bat lehenengoz izendatzen denean, haren agintaldiak hiru urte iraungo du, eta ezin izango da berritu.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira lege organiko honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko arau guztiak.

Azken xedapenetako lehena. *Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoa aldatzea.*

Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoan, 15 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«15 bis artikulua. *Datu pertsonalen tratamendua.*

1. Espetxe batean barneratu berri bat onartzen badute, haren identitate pertsonala egiaztatuko da, txartel alfabetikoaren, hatz-marken eta argazkiaren bidez, eta, era berean, pertsona hori sarreraren liburuan inskribatuko da, eta espediente pertsonala irekiko zaio, haren egoera prozesalaren eta espetxe-egoeraren berri emateko —espediente hori irispidean izateko eskubidea aitortzen zaio giltzaperatuari—. Aipatutako eskubidea barneratu bakoitzari banan-banan baino ezin zaio mugatu, eta, betiere, segurtasun- edo tratamendu-arrazoi zehatzak direla tarteko.

2. Barneratuen datu pertsonalak tratatzean, Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoari jarraituko zaio. Aurreko apartatuan ageri ez diren kategoriatan berezietako datu pertsonalak tratatzeko, interesdunaren adostasuna beharko da. Adostasunik gabe tratatuko dira, bakar-bakarrik, tratamendua nahitaezkoa denean eta interesdunen datuak babesteko eskubidea behar bezala bermatuta egiten denean, kontuan hartuta zer motatakoak diren tratatu beharreko datuak eta zer helburu duten zigorra betearazteko tratamenduek.

3. Halaber, barneratua eta haren ondasunak miatuko dituzte, eta baimenduta ez dauden objektuak eta tresnak kenduko zaizkio.

4. Espetxean sartzean, behar diren higiene pertsonaleko neurriak hartuko dira. Horrez gain, behar dituen jantziak emango zaizkio barneratuari, eta hark jantziak jaso izana sinatu beharko du».

Azken xedapenetako bigarrena. *Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea aldatzea.*

Bat. Aldatu egiten da 12. artikulua; n) apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«n) Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Unitatea».

Bi. Aldatu egiten da 20. artikulua; Lau apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«Lau. Era berean, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren barruan, Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Unitatea egongo da. Unitate horrek egikaritutako ditu datuak babesteko agintaritzari dagozkion eskumenak, hau da, Fiskaltzak,

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236 octies artikuluan ezarritakoari jarraituz, bere eskumenen eta ahalen eremuan helburu jurisdikzionalekin egindako datuen tratamenduaren gaineko eskumenak. Unitate hori Botere Judizialaren Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera erregulatuko da, lege hori aplikatzekoa zaion bezain laster.

Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularra Kontseilu Fiskaleko Osoko Bilkuraren gehiengo osoz izendatuko da, unitate horren buru izan dadin. Pertsona hori gaitasun profesional aitortuko legelarien artetik aukeratuko da, eta izendatutako pertsonak gutxienez hamabost urteko jardun profesionala eta datuak babestearen arloan ezagutza eta esperientzia izan beharko ditu.

Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularraren agintaldia bost urtekoa izango da, eta ezin izango da berritu. Agintaldian zehar, hala badagokio, zerbitzu berezietako egoeran egongo da, eta karguari datxezkion eginkizunak baino ez ditu beteko. Ez da kargutik kenduko ez bada ezintasunagatik edo eginbeharren ez-betetze larriagatik; Osoko Bilkurak balioetsi behar ditu egitate horiek, gehiengo osoz.

Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularraren bateraezintasun-araubidea Estatuko Fiskaltza Nagusiko organo teknikoetan diharduten fiskalentzat ezarritako berbera izango da. Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularrak independentzia eta neutraltasun osoz bete beharko ditu bere eginkizunak.

Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularrak eta unitate horri atxikitako gainerako langileek sekretu profesionala gorde beharko dute, bai beren agintaldian, bai agintaldia amaitu ondoan, beren eginkizunak betetzean eta eskudantziak egikaritzean jakin duten informazio konfidentzial orori dagokionez. Pertsona fisikoek Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Unitateari araudi hau urratu izanari buruz ematen dioten informazioari aplikatuko zaio, bereziki sekretu profesionala gordetzeko eginbeharra.

Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez arautuko dira. Nolanahi ere, unitateak bere eginkizunak behar bezala betetzeko behar dituen giza baliabide eta baliabide material guztiak dituela zaindu beharko da».

Hiru. Aldatu egiten da 14. artikulua; 4. apartatuari l) letra gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«l) Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularra gehiengo osoz izendatzea».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzea.*

Jarraian adierazitako artikuluetan aldaketa hauek egin dira:

Bat. Honela geratzen da idatzita 234. artikulua:

«234. artikulua.

1. Justizia Administrazioaren letraduek eta bulego judizialeko eta bulego fiskaleko funtzionario eskudunek interesdunei emango diete jarduketa prozesalen egoerari buruz eskatzen duten informazio guztia, haiek azter eta ezagut ditzaten, salbu eta legearen arabera isilpekoak edo erreserbatuak badira edo isilpekotzat edo erreserbatutzat deklaratu badira.

2. Alderdiek eta interes legitimoa eta zuzenekoa egiaztatzen duen pertsona orok eskubidea izango dute autoetan jasotako idatzien eta dokumentuen kopia soilak eskuratzeko, lege prozesalean eta, hala badagokio, Justizia Administrazioan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea arautzen duen uztailaren



5eko 18/2011 Legean xedatutako moduan; betiere, isilpekotzat edo erreserbatutzat deklaratu ez badira. Gainera, lekukotzak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea izango dute, lege prozesalean zehaztutako kasuetan eta moduan».

Bi. Honela geratzen da idatzita 235. artikulua:

«235. artikulua.

Prozeduraren parte izan ez eta interes legitimo eta zuzena egiaztatzen dutenek ebazpen judizialak, horien alderdi jakin batzuk, edo bestelako jarduketa prozesalak irispidean izan ahal izateko, horietan ageri diren datu pertsonalak disoziatu edo anonimo bihurtu beharko dira, edo datuok babesteko beste neurriren bat hartu beharko da, bete-betean errespetatuz intimitaterako eskubidea, bai eta, hala badagokio, babes-behar berezia duten pertsonen eskubideak eta biktimen edo kalte-dunen anonimotasuna bermatzeko eskubidea ere».

Hiru. Honela geratzen da idatzita 235 bis artikulua:

«235 bis artikulua.

1. Herritar orok izan ditzake irispidean kondena-epai irmoetako epaitzetan jasotako datu pertsonalak, baldin eta epaitza horiek artikulua hauetan aurreikusitako delituen ondorioz eman badira:

a) Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 305., 305 bis eta 306. artikulua.

b) Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 257. eta 258. artikulua, iruzurra egin zaion hartzekoduna ogasun publikoa denean.

c) Kontrabandoa Zigorrezko abenduaren 12ko 12/1995 Lege Organikoaren 2. artikulua, Estatuko edo Europar Batasuneko ogasun publikoari kalterik eragiten bazaio.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuetan, Justizia Administrazioaren letraduak ziurtagiri bat egingo du, eta datu hauek jasoko ditu han:

a) Prozesu judiziala identifikatzeko aukera ematen dutenak.

b) Kondenatuaren izen-abizenak edo sozietate-izena, eta, hala badagokio, baita erantzule zibilarenak ere.

c) Zer delitu dela-eta kondenatu duten.

d) Zer zigor ezarri zaion.

e) Epaian adierazitakoaren arabera, zer kalte eragin zaion ogasun publikoari kontzeptu guztiengatik.

Justizia Administrazioaren letraduak ziurtagiria Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du antolaketa-eginbidearen bitartez.

3. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko baldin eta kondenatuak edo, hala badagokio, erantzule zibilak, epaia irmo bihurtu aurretik, ogasun publikoari kontzeptu guztiengatik eragindako kalteari dagokion zenbateko osoa ordaintzen badu edo organo judizial eskudunaren gordailuen eta kontsignazioen kontuan kontsignatzen badu».

Lau. Honela geratzen da idatzita 236. artikulua:

«236. artikulua.

Ediktu Taula Judizial Bakarrean argitaratuko dira ediktuak, erregelamenduz xedatzen den moduan, eta ediktuan haren helburua bete dadin behar-beharrezkoak diren datuak bakarrik jasoko dira».

Bost. Honela geratzen da idatzita 236 bis artikulua:

«236 bis artikulua.

1. Datu pertsonalak helburu jurisdikzionalekin edo ez-jurisdikzionalekin trata daitezke. Jurisdikzio-jarduera gauzatzea helburu duten prozesuetan txertatuta dauden datuen tratamenduak helburu jurisdikzionalak izango ditu.

2. Justizia Administrazioak datu pertsonalak tratatzen dituenean, Justizia Administrazioako organo eskudunak egingo du tratamendua, eta, haren barruan, indarrean dagoen araudiak esleitutako eskumena duenak».

Sei. Honela geratzen da idatzita 236 ter artikulua:

«236 ter artikulua.

1. Organo judicial eta fiskaltza eskudunek beren ardurapeko prozesuen izapideekin loturik egiten duten datu pertsonalen tratamendua eta bulego judicial eta fiskalaren kudeaketaren barruan egindakoa arautzeko, (EB) 2016/679 Erregelamenduan, 3/2018 Lege Organikoan eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraituko zaio, hargatik eragotzi gabe kapitulu honetan eta lege prozesalean ezarritako berezitasunak.

2. Jurisdikzio penalaren eremuan, organo judicial eta fiskaltza eskudunek beren ardurapean dauden prozesuak, eginbideak edo espedienteak izapidetzean datu pertsonalak tratatzen dituztenean, baita bulego judicial eta fiskalaren kudeaketaren barruan datu pertsonalak tratatzen direnean ere, Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoa beteko da, hargatik eragotzi gabe kapitulu honetan, lege prozesalean eta, hala badagokio, Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legean ezarritako berezitasunak.

3. Ez da beharrezkoa izango interesdunak adostasuna ematea jurisdikzio-jardueraren barruan datu pertsonalak tratatzeko —dela alderdiek emandakoak, dela organo eskudunek eskatuta bildutakoak—, hargatik eragotzi gabe arau prozesalean frogaren baliozkotasunerako xedatzen dena».

Zazpi. Honela geratzen da idatzita 236 quater artikulua:

«236 quater artikulua.

Datuak helburu ez-jurisdikzionalekin tratatzean, (EB) 2016/679 Erregelamenduan, 3/2018 Lege Organikoan eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraituko zaio».

Zortzi. Honela geratzen da idatzita 236 quinquies artikulua:

«236 quinquies artikulua.

1. Ebazpen eta jarduketa prozesalean, datu pertsonal egoki eta bidezkoak eta tratamenduaren helburuak betetzeko beharrezkoak direnak jasoko dira —bereziki, benetako babes judizialerako eskubidea bermatzeko beharrezkoak direnak—, eta ezin daiteke inoiz ere babesgabeziarik gerta.

2. Epailleek eta magistratuek, fiskalek eta Justizia Administrazioaren letraduek, beren eskumenekin bat, behar diren neurriak hartu ahalko dituzte alderdiek prozesua izapidetzen ari den bitartean kontsulta ditzaketen ebazpenetan eta dokumentuetan jasotako datu pertsonalak ezerezteko, non eta ez diren premiazkoak benetako babes judizialerako eskubidea bermatzeko, eta ezin daiteke inoiz ere babesgabeziarik gerta.

3. Alderdiek, prozesuaren bidez jakiten dituzten datu pertsonalak tratatzean, datuak babesteko araudi orokorra beteko dute. Halaber, alderdien ordezkari eta

laguntzaile diren profesionalak eta prozeduran parte hartzen duten profesionalak ere konplitu behar dute betebeharrak.

4. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren eta Justizia Ministerioaren mendeko organo eskudunei jakinarazi behar zaizkie, bidezkoa denean, helburu jurisdikzionaletan tratatutako datuak, baldin eta behar-beharrezkoak badira lege honetan eta hura garatzeko araudian ezartzen diren ikuskatze- eta kontrol-egitekoak betetzeko. Era berean, helburu ez-jurisdikzionaletan tratatutako datuak eman behar zaizkie, baldin eta errekurso bat jarri izanak justifikatzen badu hori, edo legeak esleitzen dizkien eskumenak egikaritzeko beharrezkoa bada.

5. Lege honetan ezarritako komunikazio-bulegoek, komunikazio instituzionaleko beren eginkizunak betetzean, kasuan kasuko prozeduran parte hartu dutenen datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea errespetatzen dela zaindu behar dute. Beren helburua betetzeko, behar diren datuak eskatu ahalko dizkiete agintaritzak eskudunei.

6. Justizia Administrazioaren letraduek Estatuko Abokatzari eman beharko dizkiote Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aurrean eta giza eskubideen babesean diharduten nazioarteko beste organo batzuen aurrean —bereziki, Nazio Batuen Batzordearen aurrean— Espainiako Erresuma ordezkatzeko eta defendatzeko behar diren datu pertsonalak, informazioa eta dokumentuak. Horretarako, halaber, Estatuko Fiskaltza Nagusiarekin komunikatzeko mekanismoak ezarriko dira, haren unitate eskudunen bitartez».

Bederatzi. Honela geratzen da idatzita 236 sexies artikulua:

«236 sexies artikulua.

1. Administrazio eskudunak baliabide teknologiko egokiak eskaini behar ditu datu pertsonalak legezko eta erregelamenduzko xedapenei jarraituz tratatzeko.

2. Administrazio eskudunak datu pertsonalak tratatzeari eta babesteari dagokionez prestazioa ematen duen administrazio gisa esleitzen dizkioten erantzukizunak bete behar ditu.

3. Antolaketa-neurri egokiak hartu behar dira bulego judizial eta fiskalak datu pertsonalak behar bezala trata ditzan. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak —eta, hala badagokio, baita Estatuko Fiskaltza Nagusiak ere— bere txostena egin ondoren, Justizia Ministerioak ereduak kodeak egin eta eguneratu behar ditu. Ereduzko kodeen helburua da datu pertsonalak babesteko araudia bulego judizial eta fiskalean behar bezala aplikatzen laguntzea, eta, horretarako, araudi orokorrean jasotako printzipioak egokitzen dituzte bulego judizial eta fiskalaren erregulazio prozesalari eta antolaketari dagozkien printzipioetara.

4. Justizia Ministerioak eta hizpide dugun arloan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoek, Justizia Administrazioari laguntzeko eta prozeduren kudeaketa elektronikoa garatzeko politiken barruan, datu ez-pertsonalak tratatu ahalko dituzte kudeaketa publikoaren arloan dituzten eskumenak egikaritzeko, aplikatzekoak diren elkarrengarritasunari, segurtasunari eta datuak babesteari buruzko arauak bete; eskumen horien barruan sartuko da dokumentuak sailkatzeko sistema automatikoak garatzea eta ezartzea».

Hamar. Honela geratzen da idatzita 236 septies artikulua:

«236 septies artikulua.

1. Datu pertsonalak helburu jurisdikzionaletan tratatzeari dagokionez, datuak zer prozesutan bildu ziren, bada prozesu horri aplikatzekoak zaizkion arauen arabera izapidetuko dira informazioa jasotzeko, irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta informazioaren tratamendua mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak. Aipatutako eskubideak prozedura izapidetzen ari diren organo

judizial, fiskaltza edo bulego judizialen aurrean egikaritu behar dira, eta araudi organikoaren eta prozesalaren arabera eskumena esleituta duenak ebatzi behar ditu eskaerak.

2. Nolanahi ere, ezingo da helburu jurisdikzionalekin tratatzen diren datuetan sartu baldin eta informazioa jasotzen duten eginbide prozesalak isilpekoak edo erreserbatuak badira edo halakotzat jo badira.

3. Datu pertsonalak helburu ez-jurisdikzionalekin tratatzen direnean, interesdunek informazioa jasotzeko, irispidean izateko, zuzentzeko eta ezereztzeko eta informazioaren tratamendua mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak egikaritu ahalko dituzte, datuak babesteko araudi orokorrean ezarritakoari jarraituz».

Hamaika. Honela geratzen da idatzita 236 octies artikulua:

«236 octies artikulua.

1. Epaitegiek, auzitegiek, fiskaltzek eta bulego judizialak eta fiskalak helburu jurisdikzionalekin egindako tratamendu-eragiketak direla-eta, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Estatuko Fiskaltza Nagusiak eginkizun hauek izango dituzte, zeinek bere eskumenen eremuan:

a) Datu pertsonalen babesari buruzko araudia betetzen den ala ez gainbegiratzea, lege honek eta Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoak esleitzen dieten ikuskapen-lanaren bidez.

b) Justizia Administrazioako profesionalen sentsibilizazioa bultzatzea, eta tratamenduaren inguruko arriskuak, arauak, bermeak, eskubideak eta betebeharrak ulertaraztea.

c) Bulego judizialean eta fiskalean datu pertsonalen babesari buruzko araudia behar bezala aplikatzen laguntzeko ereduak kodeei buruzko txostena egitea.

d) Edozein interesdunek hala eskatzen badu, datuak babestearen arloko eskubideak egikaritzeari buruzko informazioa ematea.

e) Interesdunek edo interes kolektiboak defendatzeko gaitasun prozesala edo legitimazioa duten elkarteek, antolakundeek edo entitateek aurkezten dituzten erreklamazioak izapidetzea, eta erreklamazio horiei erantzutea, datuak bildu ziren prozesuari aplikatzekoak zaizkion legeek ezarritakoaren arabera. Erreklamazioari eman zaion izapidearen berri emango zaio erreklamatzailari, arrazoizko epean, eta izapide horien emaitza jakinaraziko zaio; horretarako, baliteke ikerketa-lanak egin behar izatea alde zuzenetik.

2. Datuak helburu ez-jurisdikzionalekin tratatzen direnean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak izango du tratamendu horien gaineko eskumena. Agentzia horrek gainbegiratuko ditu, halaber, aurreko apartatuan aipatutakoez bestelako agintaritzen eskumeneko tratamenduak.

3. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Estatuko Fiskaltza Nagusia eta Datuak Babesteko Espainiako Agentzia lankidetzan arituko dira, Justizia Administrazioaren eremuan datu pertsonalak babestu daitezzen lege organiko honek esleitzen dizkien eskumenak behar bezala egikaritzeko.

4. Datuen babesari buruzko araudia urratu delako ustearekin lotutako ikerketa-jarduketak egiten direnean, aurreko apartatuetan aipatutako agintaritzak eskudunen ustez eskumena beste agintaritzak batek duela pentsarazten duten zantzuak badaude, berehala jakinaraziko diote beste agintaritzak horri, prozedura izapidetzen jarrai dezan».

Hamabi. Honela geratzen da idatzita 236 nonies artikulua:

«236 nonies artikulua.

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren mendeko Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritzak egikaritzeko eta auzitegiek —Lege Organikoaren 236 octies artikuluan ezarritakoari jarraituz— helburu ez-jurisdikzionalekin egindako datuen tratamenduaren gaineko eskumenak, zeinak datu pertsonalak babesteko agintaritzari dagozkion.

2. Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritzaren titularrak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuraren gehiengo osoz izendatuko da, zuzendaritza horren buru izan dadin. Pertsona hori gaitasun profesional aitortuko legelarien artetik aukeratuko da, eta izendatutako pertsonak gutxienez hamabost urteko jardun profesionala eta datuak babestearen arloan ezagutza eta esperientzia izan beharko ditu.

3. Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritzaren titularraren agintaldia bost urtekoa izango da, eta ezin izango da berritu. Agintaldian zehar, hala badagokio, zerbitzu berezietako egoeran egongo da, eta karguari datxezkion eginkizunak baino ez ditu beteko. Ez da kargutik kenduko ez bada ezintasunagatik edo eginbeharren ez-betetze larriagatik; Osoko Bilkurak balioetsi behar ditu egitate horiek, gehiengo osoz.

4. Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritzaren titularraren bateraezintasun-araubidea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko organo teknikoetan diharduten magistratuentzat ezarritako berbera izango da. Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritzaren titularrak independentzia eta neutraltasun osoz bete beharko ditu bere eginkizunak.

5. Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritzaren titularrak eta unitate horri atxikitako gainerako langileek sekretu profesionala gorde behar dute, bai beren agintaldian, bai agintaldia amaitu ondoan, beren eginkizunak betetzean eta eskudantziak egikaritzean jakin duten informazio konfidentzial orori dagokionez. Pertsona fisikoek Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritzari araudi hau urratu izanari buruz ematen dioten informazioari aplikatuko zaio, bereziki sekretu profesionala gordetzeko eginbeharra.

6. Datuen Babesa Gainbegiratzeko eta Kontrolatzeko Zuzendaritzaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez arautuko dira. Zuzendaritzak bere eginkizunak behar bezala betetzeko behar dituen giza baliabide eta baliabide material guztiak dituela zaindu beharko du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak».

Hamahiru. Honela geratzen da idatzita 236 decies artikulua:

«236 decies artikulua.

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Estatuko Fiskaltza Nagusiak (zeinek bere eskumenak egikaritzu) egiten dituzten datu-tratamenduetan, datu pertsonalak babestearen arloan indarrean den legerian xedatutakoa bete behar da. Ez da inola ere ulertuko tratamenduok helburu jurisdikzionalekin egin direla.

2. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta hura osatzen duten organoek datu pertsonalen tratamendu-eragiketak egin ahal izateko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak baimendu beharko ditu eragiketok, akordio bidez, Idazkaritza Nagusiak proposatuta. Azken hori izango da, bada, tratamenduaren arduraduna.

3. Datu pertsonalen tratamendu-eragiketak Estatuko Fiskaltza Nagusiak egin behar baditu, Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoan eta horri buruz ematen diren jarraibideetan ezarritakoaren arabera baimenduko dira».

Hamalau. Honela geratzen da idatzita 560.1 artikuluko 19. zenbakia:

«560. artikulua.

1. (...)

19. Datu pertsonalak babestearen arloan, 236 octies artikuluan zehaztutako eginkizunak beteko ditu».

Azken xedapenetako laugarrena. *3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, aldatzea.*

Bat. Apartatu berri bat eransten zaio 2. artikuluari, 5. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. artikulua.

5. Fiskaltzak bere eskumeneko prozesuen izapideekin loturik egiten dituen datu-tratamenduak eta Bulego Fiskalaren kudeaketaren barruan helburu beraz egindakoak (EB) 2016/679 Erregelamenduan eta lege organiko honetan xedatutakoaren arabera arautuko dira, hargatik eragotzi gabe Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legean, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan eta aplikatzekoak diren arau prozesaletan xedatutakoak».

Bi. Aldatu egiten da 44. artikuluen 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«44. artikulua.

3. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, eta, hala badagokio, Estatuko Fiskaltza Nagusia lankidetzan arituko dira, justizia-administrazioaren eremuko datu pertsonalak babestearen arloan Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak esleitzen dizkien eskumenak egoki egikaritzeko».

Hiru. Aldatu egiten da hamabosgarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren informazio-errekerimendua.*

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, delitu astunak detektatzeko asmoz gainbegiratze- edo ikuskatze-lanak egiteko behar duen informazioa beste ezein bideren bitartez lortzerik izan ez duenean, herritarrentzat eskuragarri dauden komunikazio elektronikoen zerbitzuak eskaintzen dituzten operadoreei eta informazioaren gizarteko zerbitzu-emaileei eskatu ahalko dizkie komunikazio elektronikolari buruz edo informazioaren gizarteko zerbitzuari buruz eskura dituzten bestelako datuak, aipatutako lanak egiteko nahitaezkoak badira.

Aldez aurretik epailearen baimena beharko da datuak laga ahal izateko, eta baimen hori arau prozesalak betez emango da».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Irailaren 16ko 1/2020 Lege Organikoa aldatzea, Terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko asmoz Bidaiarien Izenen Erregistroko datuak erabiltzeari buruzkoa.*

Aldatu egiten da 10. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Hegazkin-konpainiek une hauetan transmititu behar dizkiote PNR datuak BIUri:

a) Hegaldirako programatutako irteera-ordua baino 24 eta 48 ordu lehenagoko denbora-tartean.

b) Hegaldia itxi eta berehala, behin bidaiariak hegazkineratuta daudenean, hegaldia irtetear, eta, beraz, hegazkinean sartzea edo hegazkinetik irtetea ezinezkoa denean.

Hegazkin-konpainiek a) letraren arabera helarazi duten informazioa eguneratzera mugatu dezakete b) letran aurreikusitako transmisioa.

2. Espainiaren agindupeko aireko espazioan diharduen aire-nabigazioko zerbitzuen hornitzaileak helmuga-aldaketen berri emango dio BIUri, bai eta programatu gabeko eskalen berri ere, hegazkineko tripulazioak edo aire-nabigazioko beste hornitzaile batek halako eskalak egongo direla jakinarazten badu.

3. Gainera, 1. apartatuan adierazitako uneetatik kanpo PNR datuetara irispidea izatea nahitaezkoa denean terrorismo delituekin edo delitu astunekin zerikusia duen mehatxu erreal eta zehatz bati erantzuteko, betebeharreko subjektuek, kasuz kasu, datu horiek transmititu beharko dizkiote BIUri, errekerimendua jaso eta berehala».

Azken xedapenetako seigarrena. *Uztailaren 11ko 19/2007 Legea, Kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa, aldatzea.*

Aldatu egiten da 30. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«30. artikulua. *Zehapen-prozedura.*

1. Titulu honetan aipatzen den zehatzeko ahala egikaritzean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta azken hori garatzeko xedapenetan ezarritakoa beteko da, hargatik eragotzi gabe titulu honek arautzen dituen berezitasunak.

2. Ebazpenik jakinarazi ezean, hasi eta sei hilabetera iraungiko da prozedura; halere, epe hori zenbatzean, interesdunari egozteko moduko eteteak hartuko dira kontuan, baita prozedura judizial penala dagoelako (eta hura amaitzen den arte) erabaki beharreko etetea ere, betiere horrelakoetan subjektua, egitatea eta arau-haustearen funtsa berberak badira».

Azken xedapenetako zazpigarrena. *5/2014 Legea, apirilaren 4koa, Segurtasun Pribatuarena, aldatzea.*

Aldatu egiten da 69. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«69. artikulua. *Araubide juridikoa.*

1. Segurtasun pribatuaren arloko zehatzeko ahala egikaritzean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta azken hori garatzeko xedapenetan ezarritakoa beteko da, hargatik eragotzi gabe titulu honek arautzen dituen berezitasunak.

2. Ebazpenik jakinarazi ezean, hasi eta sei hilabetera iraungiko da prozedura; halere, epe hori zenbatzean, interesdunari egozteko moduko eteteak hartuko dira kontuan, baita prozedura judizial penala dagoelako (eta hura amaitzen den arte) erabaki beharreko etetea ere, betiere horrelakoetan subjektua, egitatea eta arau-haustearen funtsa berberak badira.

3. Zehapen-prozedura hastean, prozedura abiarazteko agindua eman duen organoak kautela-neurriak hartu ahalko ditu, beharrezkoak direnean instrukzio egokia bermatzeko, araua hausten jarraitzea saihesteko, zehapena ordaintzen dela ziurtatzeko —baldin eta diruzkoa bada—, edo zehapena betetzen dela ziurtatzeko —gainerako kasuetan—.

4. Neurri horiek ustezko arau-haustearen izaerarekin kongruenteak izan behar dira, eta haren larritasunaren proportziokoak. Hauek izan daitezke neurriak:

a) Debekatuta edo homologatu gabe dauden edota arriskutsuak edo kaltegarriak diren ibilgailuak, armak, materiala edo ekipoak hartzea edo zigilatzea, baita arau-haustearen instrumentuak eta efektuak ere.

b) Baimenak, gaikuntzak edo lizentziak prebentzioz kentzea, edo, hala dagokionean, erantzukizunpeko adierazpenen eraginkortasuna etetea.

c) Segurtasun pribatuko langileen gaikuntza etetea, eta, hala dagokionean, hura emateko prozeduraren izapideak etetea, segurtasun pribatuaren arloko arau-hauste astun edo oso astunengatiko espedienteen instrukzioak irauten duen bitartean.

Adierazitako gaikuntza eta izapideak ere eten ahalko dira, harik eta aipatutako langile horien aurkako delituengatiko prozesua amaitzen den arte.

5. Aurreko apartatuko b) eta c) paragrafoetan aurreikusitako kautela-neurriek ezingo dute urtebetetik gorako iraupena izan».

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea, zeina urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen, aldatzea.*

Aldatu egiten da 68. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«68. artikulua. *Matrikulak.*

1. Ibilgailu motordunak eta erregelamendu bidez ezarritako gehieneko masa baimendua gainditzen duten atoiak zirkulazioan jartzeko, matrikulatu egin behar dira, eta arauen arabera esleitutako karaktereak jasotzen dituzten matrikula-plakak jarri behar zaizkie. Ziklomotorrek ere betebehar hori konplitu behar dute, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

2. Aurreko apartatuan aipatutako ibilgailuak Espainian behin betiko matrikulatu behar dira, baldin eta Espainiako egoiliar diren edo Espainian kokatutako establezimenduen titular diren pertsonak edo entitateek Espainiako lurraldean erabiltzekoak badira. Betebehar hori konplitzeko epeak, eskakizunak eta baldintzak erregelamendu bidez ezarriko dira, baita egoki diren salbuespenak ere.

3. Matrikula arrunta bakarra izango da ibilgailu bakoitzerako, erregelamendu bidez zehazten den kasuetan izan ezik. Segurtasun nazionalean eragina izan dezaketen inguruabarrak gertatzen direnean, hasieran esleitutakoa ez den beste matrikula bat erabiltzeko baimena eman ahalko du Segurtasuneko estatu-idazkariak. Mota horretako matrikulak ez dira Ibilgailuen Erregistro Orokorrean argitaratuko, eta, are salbuespenezko egoeretan ere, Segurtasun Indar eta Kidegoek eta Inteligentzia Zentro Nazionalak ustezko titulartasuna erabil dezakete trafiko juridikoaren arloan dihardutenean.

4. Justifikatutako kasuetan, zirkulazio-baimena emateko eskumena duen agintaritzak aldi baterako eta behin-behineko zirkulazio-baimenak eman ahalko ditu erregelamenduz xedatutakoaren arabera».

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Legearen izaera.*

Lege hau lege organikoa da. Hala ere, hauek lege arruntaren izaerakoak dira:

- a) VI. kapitulua.
- b) VII. kapitulua.
- c) VIII. kapitulua.
- d) Azken xedapenetako bigarrena, seigarrena, zazpigarrena eta zortzigarrena.



Azken xedapenetako hamargarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege organiko hau Konstituzioaren 149.1 artikuluko 1., 6., 18. eta 29. arauen babesean eman da; izan ere, artikuluko horiek eskumen eskusiboak esleitzen dizkiote Estatuari, hurrenez hurren, konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatuko duten oinarritzko baldintzak arautzeko; administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarrien, administrazio-prozedura erkidearen eta administrazio publikoen erantzukizun-sistemaren gainean; legeria penalaren eta prozesalaren eta espetxe-arloko legeriaren gainean; eta segurtasun publikoaren gainean.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.*

Lege organiko honen bidez, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentaraua, zeinak pertsona fisikoen babesa arautzen baitu, agintaritza eskudunek arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu edo epaitzeko asmoz edo zehapen penalak betearazteko asmoz datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez, eta indarrak gabe uzten baitu Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia.

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Indarreen jartzea.*

Lege organiko hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei egunera jarriko da indarreen.

Nolanahi ere, IV. kapituluaren jasotako aurreikuspenek lege organiko hau indarreen jarri eta sei hilabetera sortuko dituzte ondorioak.

Horrenbestez,

Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilén, 2021eko maiatzaren 26an.

FELIPE E.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN